

# INTERFERENTZIA, HIZTUN GARBIEN GALERA ETA MINTZALDAKETA: HIRIART-URRUTIREN GARAIKO ZENBAIT KORRELATO

Mikel Zalbide  
(Euskaltzaindia)

## Abstract

*Language contact often results in three different types of outcome: a jump from language maintenance to language shift in the use of the languages at work, an increase in the numbers of bilinguals with varying language dominance configurations in the speech communities involved (in one of them, at least) and an intensification of interference and similar novelties with regard to the internal composition of the language. The journalist Hiriart-Urruti (1859-1915) was fairly familiar with instances of those three planes. His society was moving rapidly from the spread of French to language shift towards it: he attempted to reflect that on a number of occasions.*

*When he did so, he often strove to give a structured presentation of events as they unfolded, without much technical terminology. To that effect he used specific outlooks and drew specific consequences. In addition, he occasionally believed he could detect the underlying logic of events. This article seeks to inform about those outlooks, main consequences and underlying logical concatenations.*

## Sarrera moduan

Jakintza-alorren arteko muga zorrotzak errazago markatu ohi dira paperean, eguneroko jarduera profesionalean baino. Non dago, esate baterako, ingeniarien eta arkitektoen arteko muga zehatza? Enpresa-munduko eraikuntza industrial askoren, zubiaren eta bideen diseinua ingeniariari egotzen zaie sarri; etxebizitzena, aldiz, arkitektoen kontu joan ohi da. Lan-banaketa hori nekez esplika liteke bere osoan, batzuek eta besteek aplikatu beharreko ezagutza zientifiko-teknikoen berezitasun zorrotzagatik. Iturri beretik elikatzen dira, hainbatean, batzuk eta besteak. Iturri beretik elikatzea eta elkarren osagarri izate hori ez da, bestalde, jakintza-alor teknikoetan bakarrik gertatzen. Giza eta gizarte-zientzien esparruan ere lege-arau zabala izan ohi da hainbat kasutan.

Nabarmena da hori guztia, gaurkoan ukitu nahi nukeen puntuan: linguistikaren, psikolinguistikaren eta soziolinguistikaren arteko muga-kontuan eta perspektiba osagarrian. Linguistika, psikolinguistika eta soziolinguistika<sup>1</sup> ez dira elkarrengandik zo-

---

<sup>1</sup> Soziolinguistika edota, jatorrizko izan-izenei bere hartan eutsiz, *hizkuntza-soziologia*. Lehenengo terminoa ari da han-hemen nagusitzen, bistan denez. Motibo asko ditugu, ordea, makro- eta meso-mailetan bederen *hizkuntza-soziologia* delakoa ez baztertzeko.

rotz eta zeharo bereizitako jakintza-esparruak. Badute elkarrengana biltzen dituen lokarri sendorik. Has gaitzen binakako lotura ezagunekin: har ditzagun linguistika eta psikolinguistika. Hiztun bihurtzeko (hots, hizkuntza baten edo gehiagoren egitura-arauez eta beren moldaera praktikoaz jabetzeko) gizakiok dugun ahalmena ongi ezaguna da. Bestek hitzez edo idatziz adierazitakoa ongi jasotzeko eta zuzen ulertzeko gaitasuna ere bai.<sup>2</sup> Bere-berea du gizakiak, orobat, adierazi nahi dituen asmo-usteak, gogo-beldurrak edo agindu-zalantzak solaskideek entenditzeko moduan adierazteko doaia. Hiztunak eraten du, bere jardunaz, linguistikaren aztergai zentral dugun gertakari konplexua, "hizkuntza" deitzen duguna. Hiztunaren gaitasun-maillak eragin bizia du bere produkzio linguistikoan: bai zenbatekoan eta bai, bereziki, zer-nolakoan. Elkar-eraginezko harremana dute, horregatik, batez ere hizkuntzaren barne-osaeraz arduratzen den linguistikak eta hiztun jakinen hitz-etorria eta hizkuntza-gaitasuna berariaz aztertzen dituen psikolinguistikak.

Elkar-eraginezko harreman argia dute, orobat, linguistikak eta soziolinguistikak. Hizkuntza eta hiztun-elkartea, kode linguistikoa eta hartaz baliatzen den giza taldea, hiztun-multzo edo harreman-sare sotileneetatik hasi eta estatu-nazio zabalenetaraino iristen dena, elkarren eskutik joan ohi dira eskuarki. Azalpen jeneralei, hiztun-elkartea bere osoan hartzen dutenei, ikerbide zehatzagoak erantsi dizkie soziolinguistikak: hiztun-talde jakinek darabiltzaten hizkuntza-aldaerak eta aldaera-sortak deskribatu ditu batetik, hizkuntzaren barne-aldakortasuna azterketa askoren erdigunean ezarriz. Mintzajardunaren giza arteko moldaerak denboraren arian ageri dituen bilakaera-bideak, eta horien iragarle diren gizarte-giroko faktoreak, berariaz landu ditu bestetik. Aurrera begirako perspektiba erantsi du, azkenik, hizkuntzen barne-osaeran eta status-alorrean gizakiaren delibero espresak (hizkuntza-plangintzak) duen eragina aurrez aurre arakatu. Osatu, zabaldu eta hezurdura berriz aberastu ditu, horrela, hizkuntzalaritzaren hurbilbideak. Uztarri berean loturik ageri dira, nolahi ere, linguistika eta soziolinguistika.

Ez dira hiru jakintza-alor horiek, antzinatasunez eta ekarpen akademikoz, maila berekoak. Linguistika da hiruretan, askogatik, zaharrena, landuena eta ekarpen emankorrez osatuena. Beste biekiko lotura aspaldikoa du hizkuntzalaritzak, bestalde: mende-erdiko ibilera mugatua izanik ere ere osoan hartuta, beste bi perspektibekin. *Contact linguistics* horretara mugatuko gara, dena den, gaurkoan.<sup>3</sup>

<sup>2</sup> Hiru esparru horietan daukagu, oker ez banago, psikolinguistikaren muina. Xavier Frías Conde- ren hitzetan esanik (Frías 2002) «la psicolingüística o psicología del lenguaje es una disciplina híbrida dentro de la psicología y la lingüística, interesada en el estudio de los factores psicológicos y neurológicos que capacitan a los humanos para la adquisición, uso y comprensión del lenguaje».

<sup>3</sup> Are berriagoa da, sortzez, *contact linguistics* terminoa: «the term was introduced at the First World Congress on Language Contact and Conflict, held in Brussels in June 1979» (Nelde 1997: 287). Winford-en hitzetan (2002: 5), «the diverse kinds of mixture, change, adaptation, and restructuring that result from interaction between (the users of) different languages have long been of interest to linguists. At the same time, scholars in the social sciences have devoted much attention to the social aspects of contact between different linguistic groups. For instance, they have investigated the nature of group relationships and group loyalty and how they are reflected in processes of accommodation in some circumstances, and by divergence and conflict in others. These two broad lines of research have converged significantly over the last few decades, resulting in a new cross-disciplinary approach to language contact that attempts to integrate the social and the linguistic in a unified framework».

## I. Hizkuntza-kontaktua: hiru ondorio

Hizkuntza (edo hiztun-talde) bik elkar jotzen dutenean, normalean<sup>4</sup> bietako batek bestean inpaktatzen duenean, bien arteko ukipena edo kontaktua gertatzen dela esaten da eskuarki. Horrek, jakina, kontakturik gabeko egoera postulatu du. Bala da, izan, halakorik? Erantzuna argia da: inoiz inolako kontakturik izan gabeko hizkuntza (argiago esanik: menderik mende erabat isolaturik bizi izan den eta bere baitan hizkuntza-aldaera bakarra duen hiztun-elkartea) salbuespen hutsa da.<sup>5</sup> Perspektiba historiko zabaletik begiratuta, ez da halako isolamendu-egoera zorrotzik Europako mendebal honetan ezagutzen: hizkuntza gehienak (eta beren baitako aldaerak) kontaktuan egonik dira beste hizkuntzekin (edo hizkuntza bereko beste aldaerekin). Hala egonik dira sarri, aldian aldiko kontaktu hori aski berezia izana delarik zabaleraz,<sup>6</sup> intentsitatez eta iraupenez. Gurea bezalako hiztun-herri txikietan are salbuespen larriagoa da erabateko isolamendua. Hizkuntza (eta, hainbatean, hizkuntza bereko aldaera) bat baino gehiago ageri ohi da normalean, hiztun-elkartean espazio territorialaren eta soziofuntzionalaren zenbait gunetan; bertako hainbat jardun-gunek, situazioak eta harreman-sarek berekin izan ohi du, halakoetan, hizkuntza edo aldaera biren, edo gehiagoren, kopresentzia.<sup>7</sup>

Kontaktu horrek baditu bere sorburu-kausak, batetik, eta bere ondorioak bestetik. Azken hauek argitzen saiatuko gara gaurkoan, batez ere. Erraz bereizten dira oro har, kontaktu-gune eta -aldi bakoitzean, ukipenaren hiru ondorio nagusi: batetik, kontaktu horrek hizkuntz(ar)en barne-osaeran (hots-ebakeran, hitz-altxorrean, morfosintaxian...) eragiten dituen aldaketak; bestetik, hiztun-elkarte bateko (edo bietako) hainbat hiztunengan sortzen den elebitasun moldea;<sup>8</sup> azkenik, hizkuntza bien erabileran gertatzen diren galdu-irabaziak. Jarduera akademikoari dagokionez aparte landu ohi dira, normalean, hizkuntza-kontaktuaren hiru ondorio moldeok. Ikuspegia dute horiek, lehenik eta behin, diferente. Ikuspegi *linguozentrikoa* du batek nagusi, *psikozen-trikoa* besteak eta *soziozentrikoa* azkenak.<sup>9</sup> Adibide ezagunetara etorritz ikuspegi linguo-

<sup>4</sup> Hala da «normalean», baina ez beti. Hizkuntza-kontaktua era askotara gerta liteke. Guk hemen (gure artean) eta orain (demagun, azken berrogei urtean) ezagutzen dugun hizkuntza-ukipena ez da kontaktumolde bakarra. Perspektiba zabaletik ari da Donald Winford (2002: 5) honako hau dioenean: «in some cases, externally induced changes do not even require speakers of the different languages to have actual social contact. For instance, lexical borrowing can be accomplished through book learning by teachers, writers, lexicographers, and the like who pass on the new vocabulary to others via literature, religious texts, dictionaries, and so on. In other cases, prolonged social interaction between members of different speech communities may result in varying degrees of mixture and structural change in one or the other of the languages involved. In extreme cases, pervasive contact may result in new creations distinct from their original source languages».

<sup>5</sup> «Most, if not all, languages have been influenced at one time or another by contact with others» (Winford 2002: 5).


<sup>6</sup> «Zabaleria» diogunean hizkuntza-kontaktu horren *locus*-a, ukipenak espazio fisiko-territorialean zein soziofuntzionalan une jakinean duen hedadura konkretua, adierazi nahi da.

<sup>7</sup> Kopresentzia horren zernolakoa, zenbatekoa eta noiztik noiz artekoa, hori da kasu batetik bestera nabarmen aldatu ohi dena eta hizkuntza-kontaktu bakoitza besteetatik bereizten duena.

<sup>8</sup> Iraupen luzekoa (konbentzionalki, hiru belaunalditik gorakoa) izan liteke elebitasun hori, edo aldi baterakoa. Aurrerago hitz egingo da horretaz.

<sup>9</sup> *Soziozentriko* eta *linguozentriko* terminoak ez dira lan honetarako berariaz asmatuak, aspalditxodanik datozen delimitazio kontzeptual-terminologikoak baizik. Ikus, adibidez, Fishman-en azalpen ezagu-

zentrikoa du, nagusiki, Uriel Weinreich-en 1953ko *Languages in Contact* delakoak.<sup>10</sup> Funtsean psikozentrikoa da, bestetik, W. E. Lambert-en *language competence* eta *language attitude* edo *motivation* direlakoen paradigma.<sup>11</sup> Batez ere soziozentrikoa dugu, azkenik, Fishman-en 1964ko paradigma, bibliografia teknikoan *language maintenance and language shift*-en mantupean bildu ohi dena. Hizkuntzaren osakerari berari gertatzen zaizkion aldaketak ditu linguistikak muin-muineko ikasgai; norbanako hitzuna hizkuntza batean edo bestean, hitzez edo idatziz, jarduteko duen gaitasunak osatzen du psikolinguistikaren azter-eremu zentrala; hizkuntzaren jendarteko erabilera du hizkuntza-soziologiak abiaburuko aztergai nagusi. Ondoko azalpen grafikoan jaso dira, labur bilduz, hiru ondorio mota horiek: ondorio linguistikoak batetik, norbanako hitzunaren eragiten diren ondorioak bestetik eta gizartean gertatu ohi direnak azkenik:



nak. *Linguozentriko* hitzak egungo egunean berekin dituen adiera ugarietako bat du delimitazio horrek gogoan: hurbilbideari dagokiona. Horrela ulertzekoak dira, adibidez, Danko Sipka-ren «*linguocentric and anthropocentric approaches*». Erreparorik sortuko balu hitzak, dena den, hor legoke alternatiba: *glo-tozentriko*. Bi termino (*soziozentriko* eta *linguozentriko*) horien antzera eratu da azkenik, lantxo honetarako berariaz, *psikozentriko* hitza.

<sup>10</sup> Bere hitzetan esanik, «to predict typical forms of interference from the sociolinguistic description of a bilingual community and a structural description of its languages is the ultimate goal of interference studies». Weinreich (1953: 86). Ezin esan liteke ordea, inola ere, ikuspegi psikozentrikoa eta, bereziki, soziozentrikoa bere lan handi hartan erabat falta direnik: soziolinguistikaren zenbait termino eta hainbat definizio operatibo Weinreich-ek asmatuak edo zabalduak dira funtsean.

<sup>11</sup> Ikus, adibidez, Lambert eta Tucker (1972).

Beherago azalduko diren testigantza batzuen argitan, balirudike beregainak direla hiru ondorio nagusi horiek.<sup>12</sup> Hots, besterik frogatzen ez den artean ondorio nagusi horietariko bat ez dela beste bien iturri. Aldi bereko fenomeno lokabeak direla hirurak, ez kausa-efektuzko kateamendu baten baitako elementu lotuak. Testigantza horren arabera, posible da ondorio horietariko bat (interferentzia, ele biko hizkuntza-gaitasuna, mintzaldaketa) gertatzea eta, aldiz, beste biak ez. Posible da, horrela, A hizkuntza Bren interferentziaz betetzea eta, aldi berean, mintzaira horretaz baliatzen diren hiztunak aski hiztun trebe izaten jarraitzea A hizkuntza horretan eta, orobat, hizkuntza horren erabilerak gorabehera nabarmenik (batez ere galerarik) ez izatea espazio fisiko-territorialean zein soziofuntzionaletan. Posible da hori guztia eta, zenbait testigantzaren argitan, badirudi gertatu ere hala gertatzen dela. Ikuspegi horren arabera kontaktu molde batzuk mononuklearrak dira: plano batean (hizkuntzaren baitan, norbanakoan, gizarlean) aldakuntza bat gertatzeak ez dakar, ezinbestean, parez pareko aldakuntzarik beste bi planoetan.

Ez da gure bibliografia zaharrean ere adibiderik falta, hizkuntza-kontaktua batez ere ikuspegi bakarrera bildu izan duenik. Fenomenu linguistikoa zentratu izan dira bertako idazle batzuk, hizkuntza-ukipenaren ondorioak azaltzerakoan; psikolinguistikoa zentratu izan dira besteak, eta soziolinguistikoa azkenak. Gain-gaineko begiratua emango diegu hirurei.

## II. Hizkuntzaren galera: idazle zaharren testigantza

Hizkuntza-kontaktuaren ondorio posibleetako bat, ez bakarra, bi hizkuntzetariko bat galtzea da. Zer da, ordea, hizkuntzaren “galera”? Nola enfoka liteke, eta zer kontzeptutan oinarritu? Egungo esparru akademikoan bezala, hiru erataria planteatu izan da gure artean ere euskararen galera hori: a) lehen baino “pobreagoa” da oraingo euskara (ikuspegi linguozentrikoa: interferentziaren eragina); b) lehen baino okerrago egiten da orain euskaraz (ikuspegi psikozenetrikoa, hiztunen gero eta hizkuntza-gaitasun apalagoan oinarritua), eta c) lehen baino gutxiago egiten da orain euskaraz (ikuspegi soziozenetrikoa, erabileran oinarritua: gero eta jende gutxiagok, gero eta jardun-gune eta situazio gutxiagotan, egiten du euskaraz). Adibide ugari dago gure artean, literatura-lanetan eta bestelako dokumentu zaharretan, hiru ikuspegi horien berri ematen duenik. Tradizio soziokultural aberatsa osatzen dute, jarreraren iritzien kontuekin batera, gure arteko izkribu eta dokumentu horiek.<sup>13</sup>

### a) Hizkuntzaren beraren ikuspegi linguozentrikoa

Hizkuntzaren barne-osaera bestelakotzea, desitxuratzzea eta (sarri, ez beti: ikus Urquijo 1918 eta 1920) mordoilotzea esan nahi izan du lehenik eta behin, gure artean,

<sup>12</sup> Kode-alternantzia ondorio linguistikoetatik kendu eta soziologikoetara eraman liteke, bistan da. Egia da, ordea, linguistikatik gero eta sarriago arakatu izan dela. Horrela egingo da hemen, berez soziolinguistikaren esparruan bete-betean sar litekeela jakin eta onartu arren. Hizkuntza-jarrerekin ere, bestetik, norbanakoan bezalatsu eragiten dute gizarle-esparruan.

<sup>13</sup> «Hizkuntzaren galera», halere, plano soziozenetrikoan planteatu izan da gure artean argien: «lehen euskaraz egiten zen hemen, eta orain ez». Aspaldiko kezka da gure artean, euskarazko jarduna gizarlean galtzen ari delakoa: gauza ez dator Arrese-Beitiaren garaitik. Otxandioko santuginak 1879an, Elizondoko Euskal Festetan, etsipenezko olerkiz adierazitako gertakaria ondotox lehenagotik dator.

perspektiba linguozentrikotik jardundako adituarentzat, hizkuntza-kontaktuaren ondoriozko galbideak.<sup>14</sup> Bere haria ez da antzematen zaila: erdararen eraginez galtzen ari da “euskara garbia”. Hitz-altxorra maileguz josteaz gainera bere egitura fonikoa, morfosintaktikoa eta semantikoa bestelakotzen, desitxuratzen eta, hainbatentzat, mor-doi lotzen ari da. Euskararen bestelakotze horrezaz hona Azpeitiko bikario D. Sebastian Alejok 1853an, Hiriart-Urruti jaio baino sei urte lehenago, esana:<sup>15</sup> “El transcurso de los siglos, las continuas guerras y trastornos, en especial de medio siglo aca, han dado el triste resultado de adulterar nuestra primitiva lengua Vascongada con la adopcion de multitud de vocablos tomados de otros idiomas, en terminos que se hace ya notable el desaliño é incorreccion con que aun los mismos naturales del país hablan su propia lengua”. Interferentziaz eta, belauenez belaueneko emari egonkortuaren perspektibatik, maileguz eta kalkoz jositako hizkuntza ari da, bere ustean, euskaldun-jendearen artean zabaltzen eta nagusitzen. Hizkera bera pobretzen ari da: horra hor euskararen galeraren ikuspegi linguozentrikoa.<sup>16</sup> Alejok hala uste izan arren gauza ez dator, ordea, mende-erdiko gerra-kontu eta trastorno ugari haietatik. Are perspektiba zabalagoetik planteatuz liteke euskara-erdaren arteko kontaktu-ukipena. Horrela ikusten zuen Mogelek kontua, 1800 inguruan:<sup>17</sup> “la lengua bascongada está tan alterada y desfigurada, que no la conocería la Madre que la parió. Si resucitaran los antiguos bascongados, no la entenderian”. Nekez esan liteke Mogelen azalpen hori hizkuntza-kontaktuaren ondorio moduan esplikatu litekeen huts-hutsean. Hizkuntza bizi orok, beste batekiko kontaktu handirik gabe ere, bere baitarik izan ohi duen aldaketaz dihardu hor Mogelek, besteak beste. Hala dirudi, behintzat, adierazpen esplizituei dagokienez. Ez dago ordea punta-mutur batetik bestera joan beharrik, testu-zati hori interpretatzerakoan: barne-aldaketaz gainera interferentziaren eta, are, hibridazioaren fenomenoak begien aurrean du Mogelek. Interferentziaz jardun, hibridazioaz edo bere baitariko hizkuntza-aldaketaz, gauza bat dago argi: perspektiba linguozentrikotik ari ziren funtsean, bai Mogel eta bai Alejo, bilakaera azaltzen. Tradizio horren zordun ditugu, gutxi-asko, Hiriart-Urruti eta bere garaikoak.

## b) Hizkuntza-gaitasunaren ikuspegi psikozenetrikoa

Euskararen galera ez da beti hizkuntzaren barne-osaeraren alorrean definitu izan. Hitzun jakinek (eta, integrazioz, hitzun-taldeek) euskaraz (hitzez edo ida-

<sup>14</sup> Uztarkide ezagunak ditu ikuspegi horrek, hemendik kanpora ere. Gogoratu *Stammbaum-en* teoria ortodoxoa.

<sup>15</sup> Zehaztasun handiagorako ikus Zalbide eta Muñoa (2006).

<sup>16</sup> Ez dago argi, Sebastian Alejok pasarte horretan ikuspegi psikozenetrikoa ere kontuan hartzen duen. Nola interpretatu behar da bertako «se hace ya notable el desaliño é incorreccion con que aun los mismos naturales del país hablan su propia lengua» pasarte? Batetik, eta agian zuhurrenik, maileguz beteriko euskara darabiltela esan nahi du Alejok. Posible litzateke, ordea, besterik ere ondorioztatzea: erdaraz baino «okerrago» («traketsago», «nekezago») dihardutela euskaraz. Bigarren interpretazioa balitz zuzena (ez dut uste hala denik), ikuspegi psikozenetrikoaz ere ari litzateke Alejo.

<sup>17</sup> Mogelek hori dioenean, buruan beste zerbait duela pentsa liteke berez: ez dela ezinbestean bere bizi-denborako interferentziaz ari, hizkuntza orok mendeen joanean pairatu ohi duen aldaketaz baizik. Egiaren zati bat bakarrik da, ordea, lehenaldi urruneko perspektiba hori. Markinako parrokoak *Peru Abarkan* azaldu nahi duena bere belaualdiko gertaera da, batez ere: Mogel ez da aldi joanetako bilakaera pausatuta baina etengabeen balorazio hutsa egiten ari, bere bizi-denborako fenomeno ongi ezagunaren testigantza ere ematen baizik.

tziz) jarduteko gaitasunik ez izatea edo gaitasun hori nabarmen urriturik izatea: hori da, hainbat iturriren argitan, euskararen galbidearen benetako funtsa. Demagun, esate baterako, Juan Inazio Iztuetaren 1824ko azalpena: “Gure seme campoetan guenduena bart etorri zaicu echera, chit galanturic, osasunarekin, eta guztiz jakinduria aundiakicoa. Aztu zaio bada euskera guzi-guzia: ez du itzcho bat bacarra-ere ez-esaten, eta ez endelegatzen edo comprenditzen itzcunza onetan”. Azalpen pertsonalizatu hori adibide gisa eman zuen Iztuetak, jakina denez: adibide hori azaltzean ez zen ordea kasu partikular batez ari, bere garaiko<sup>18</sup> Gipuzkoan dimentsio sozial ohargarria eskuratua zuen gertakariak baizik. Demagun, konparaziorako, Mogelen 1800 baino lehenxeagoko beste aipamen hau: “Los que salen de estos Países con el motivo de los estudios, y la buena crianza, (y no lo digo sin dolor) la dejan olvidar en gran parte. Pasados seis ó siete años entre estrangeros, vuelben á su Patria. Si sigue el rumbo Eclesiastico, tiene que predicar, ó confesar en bascuence; si es Cavallero, que tratar de diferentes Negocios, y con toda suerte de Personas. Ia se ven perdidos, sin poder formar una mediana Oracion, y poder atinar con los significados puros de las voces” (ikus Moguel 1987: 88). Goi-ikasketak urte luzez kanpoan egin dundoan herrira aski erdaldundurik itzultzen zirenek euskaraz egiteko ageri zuten zailtasun-neke, gaitasun-eskasia edo falta azpimarratzen zuten Iztuetak eta Mogelek.<sup>19</sup> Ama-hizkuntza ahazten ari zitzaion hainbat euskaldun buru-jantziri, neurri batean edo bestean: aski atzendurik zuten horiek beren ume-garaiko lehen hizkuntza. Hitzunen hitz-etorria eta erraztasuna, gauzak egoki eta zuzen esateko gaitasun-galera, zuten perspektiba psikozentrikoak ikergai nagusi. Eragin bizia izan zuen tradizio horrek ere, aurrerago ikusiko denez, Hiriart-Urrutiren eta bere garaikoen artean.

### c) Erabileraren ikuspegi soziozentrikoa

Har dezagun, esate baterako, Fermin Ulzurrun nafarraren 1662ko gogoeta hau: “Que por ser el lenguaje cantábrico o vascongado el natural de Navarra, y tan antiguo que se presume lo trajo el patriarca Túbal a España, y *por ver que se pierde* (etzana nirea), habiendo de hacerse en Navarra por ambas causas la debida estimación de él, se establezca para que se conserve siquiera en los lugares a donde hasta ahora se habla; que en los tribunales de dichos lugares se escriba y hable en vascuence”. Zer galera modu adierazi nahi zuen Ultzurrunek “por ver que se pierde” horrekin? Nafarreko euskaraz lehen baino okerrago hitz egiten zutenik ez zioen Ultzurrunek. Garai horretan egiten zen euskara lehen baino nahasiagoa, lehen baino erdarakadaz beteagoa zenik ere ez. Besterik zioen berak: Nafarroan gero eta jende gutxiagok egiten zuela euskaraz. Gero eta leku gutxiagotan egiten zela.<sup>20</sup> Horregatik planteatzen ere zuen berak euskararen zabalkunde soziofuntzionala. Konkretuki, euskarari sarbide zuzena ematea idatzizko jardunaren eta situazio-estilo formalen esparru paradigmaticoa den

<sup>18</sup> Bere garaiko eta, Larramendi, Kardaberatz edo Mogel lekuko, lehendik zetorren gertakaria genuen hori. Ikus Larramendiren 1745eko pasarte ezagunak.

<sup>19</sup> Pasarte hori zabalago irakurtzen bada, bistan da beste elementurik ere mahaigaineratzen zuela Iztuetak: gipuzkoar horien euskara-erdarekiko jarrera, iritzi eta jokaera diferentzial nabarmena.

<sup>20</sup> Gero eta herri gutxiagotan eta, agian, herri horietan ere euskarazko mintzajarduna gero eta harreman-sare eta situazio interaktibo gutxiagotan hezurramitzen zela. Bigarren hori ez dago, dena den, (hain) garbi.

justizia sailean: “que en los tribunales de dichos lugares se escriba y hable en vascuence”. Hitz egitea eta idaztea, bistan da, hizkuntza-erabileraren funtsezko atributuak dira: hots, perspektiba soziozentrikoaren elementu nagusiak. Erabilera zen dudarik gabe, ez “hizkuntza ona” edo erabiltzaileen “gaitasun beta”, Ulzurrunen kezka-gai eta gogoeta-iturri. Garrantzi handia izan zuen tradizio horrek ere, aurreko biek bezala, Hiriart-Urrutiren eta bere garaikoen formulazioetan.

Horra hor, labur bilduz, euskararen galeraz gure artean aspaldidanik indarrean dauden hiru ikuspegi klasikoak. Hiru ikuspegiok ez dira beti banaka, aparte, agertzen: bada ikuspegi biren edo hiruren konbinazioa ematen duen testigantzarik ere. Hizkuntza galtzearen hiru perspektiba diferenteez, eta beren elkar-hartzeez, ondo jakitun ageri dira horietariko hainbat: lehendikako testigantzarik falta ez den arren, konkretzio-lana bereziki nabarmena da Larramendigandik hasita. Labur bilduz: eza-gunak dira ikuspegiok egungo zientzia-esparruan eta, horrezaz gainera, ondo ezagunak ditugu etxeko tradizioan. *Hintergrund* horretan txertatzekoak ditugu Hiriart-Urrutiren eta bere garaikoen kezka-azalpenak, beldur-gogoak eta gogoeta hotza.

### III. Hiru ikuspegiak, Hiriart-Urrutiren eta bere garaikideen artean

Hiriart-Urrutiren testigantza idatzia *Eskualdun* kazetako bere artikulua ugariatik hartzen bada, eta motiborik badago noski horretarako, 1891 eta 1915 artean kokatu behar dugu bere garaia.<sup>21</sup> Mende-laurden garrantzitsua da hori, mugarri argiak izanik 1892, 1896-97, 1902-03 eta 1909 urteak. *Zazpiak Bat*-en gozameneko leher-ez-tanda sinbolikoa izan zen 1892koa, gozamen horrek berekin zekartzan asmo-berritze sendoez hornitua. Ondotxo hotzagoa izan zen hurrengoa: “euskararekin zer egin behar da, gerora begira?” galderari goi-mailan (aginte-esparruan eta akademia-alorrean) inoiz baino erantzun kontrajarri ageriagoak eman zitzaizkioneko urteak dira 1896-97koak.<sup>22</sup> Ez da kasualitatea, Hiriart-Urrutiren artikulua interesgarrietako ba-

<sup>21</sup> 1892koak dira *Eskualdun*ko bere lehen artikulua seguruak, *Ni kazeta egilea naiz* bilduman, gaital horretan. Badakigu, ordea, Louis Etcheverryk dei ginik 1891n hasi zela Hiriart-Urruti *Eskualduna*-rentzat lanean: ikus Lafitte eta Intxausti (1971: 29-30).

<sup>22</sup> “Dans son rapport du 22 avril 1896, Jules Deffes, préfet des Basses-Pyrénées, proposait au ministre des Cultes de la République Française E. Combes, la suppression total des sermons en basque, ainsi que du catéchisme basque, afin de combattre le triple inconvénient de la prédominance de l’idiome basque dans les églises du pays Basque: 1<sup>er</sup> empêche de la diffusion de l’instruction, 2<sup>e</sup> puissance du clergé, 3<sup>e</sup> atteinte à l’idée de la patrie française. Il conseillait toutefois d’attendre un moment plus favorable, après les élections, pour prendre ces mesures” (Archives Nationales, F 19 5502).

Abbadiak, aginte-esparruko asmo horien berri izanik agian, aurre egin zion ekimen horri bere esparru akademikotik. Hona nola: ahuldutako hizkuntzak indarberritzen saiatzeari zer zeritzon galdetu zion Abbadiak *Société Linguistique* delakoari. Galdera, nolana ere, Zientzia Akademiari egin nahi zion opari-sorta baten ildotik bideratu zuen. Hizkuntza Elkartearen aho batezko onespina jaso zuen Abbadiak. Horra orduko dokumentazioak justu-justu zer dioen: «M. Bréal donne lecture d’une lettre de M. d’Abbadie, l’un des fondateurs de la Société Linguistique, au sujet d’une donation qu’il se propose de faire à L’Académie des Sciences: une des clauses de cette donation étant relative à la préservation de la langue basque. M. d’Abbadie consulte la Société pour savoir s’il est, comme il pense, utile préserver les idiomes locaux. Après un échange d’observations, la Société charge à l’unanimité son secrétaire de répondre affirmativement à cette question» (Abbadia 1896: «Sur la préservation de la langue basque (notice)», *BSL* 1895-1896, IX, lxxxviii. Ikus orain Urkizu (arg. 1997: 446). 1896 inguruko tentsio-une horren ondorio izan litezke, orobat, 1897ko *Fêtes de la Tradition Basque* famatuak.



tzuk justu ordukoak izatea. Liskar handiko urtealdia dugu 1902-03koa: mendeetako ohitura urratuz euskara, *top-down* plangintzaz,<sup>23</sup> eliza-esparruan debekatu zenekoa.<sup>24</sup> Debekatu zenekoa eta, debeku zorrotz hari aurre egin nahirik, eskuarazko kazetari-tzari eta eskuaraz irakurtzeko ohitura sozialari aparteko zabalkundea ematen hasi zitzaionekoa. Eliza-hierarkian aski gora iritsia zelarik, eta bere ingurumen-baldintzez ongi jabeturik, Hiriart-Urrutik euskalgintzarako argibide zehatzak eman zituen urtea dugu, azkenik, 1909koa:<sup>25</sup> testamentu modukotzat har dezakegu dokumentu hori, euskarari bizirik eusteko bere saioen alorrean.

Ez da bakarria Hiriart-Urruti, garai-inguru horretan hizkuntza-kontaktuaren on-dorioez, kontaktu horrek euskarari sortzen dizkion kalte-arriskuez eta kalte-arrisku horiei aurre egiteko bide egokiez mintzo dena. Berekin (bide-erakusle, bidela-gun edo jarraikitzaile) ditu hainbat idazle iparraldean, eta bakarren bat hegoan.<sup>26</sup> Iparraldekoetan ezin alboratuzkoak ditugu, zaharrenetatik hasiz,<sup>27</sup> Anton Abbadia (1810-1897), Charles Petit, Martin Guilbeau (1839-1912), Martin Landerretxe (1842-1930) eta Albert Goienetxe medikua (1848-1900). Oso kontuan hartzekoa da, bestetik, bere adinkide-lagun Pierre Broussain (1859-1920). Ezin dira alde batera utzi, azkenik, interferentziaz, hiztun garbien galeraz eta mintzaldatzeaz berariaz kezkatu izan diren gazteagoak ere.<sup>28</sup>

Hiru bide nagusi ditugu aukeran, Hiriart-Urrutik eta bere garaikoek hizkuntza-kontaktua nola bizi izan zuten aztertzeko: a) kontaktu horren hiru eratako ondorioak, batzuen eta besteen esanean, zer neurritan zabaldurik zeuden ikustea; b) Hazpandar kazetariak eta bere inguruko zenbait eskualtzalek ondorio horietaz zer ikuspegi zuten aztertzea, eta c) kontaktuaren ondorio horiek Hiriart-Urrutiri berari zer neurritan eragiten zioten arakatzea. Hirutan banatuko ere dugu beraz, ahal delarik, azterlana.

### III.1. Ondorio linguistikoak

Interferentzia eta kode-alternantzia gertaera ezagunak dira Iparraldean, Hiriart-Urrutiren garaiko gizarte-bizitzan. Ez dira biak neurri eta hedadura berean ageri, ez

<sup>23</sup> Termino horretaz, eta bere definizioaz, ikus Kaplan eta Baldauf (1997).

<sup>24</sup> Ikus, adibidez, 1865eko eta 1896ko aurrekariak; orobat bere segizioko jarduera, 1906koa adibidez. Horretaz zabalxeago dihardugu txosten honen III.3.1.a atalean.

<sup>25</sup> Ikus, horretaz, *Dugun atxik eskuara* in Hiriart-Urruti (1909).

<sup>26</sup> Hegoaldekoak izanik iparraldean eragin zuzena izandakoen artean Campion eta Azkue ditugu, antza, adierazgarrienak. Urkixo ere hor sar liteke, agian: bere ikuspegia eta bere kezkek aski bestelakoak dira ordea garai inguru horretan (konkretuki, 1907tik aurrerako bere aldizkarian). Egia da jarrera eta jokabide berririk agertu zuela Urkixok 1918-19tik aurrera. Beste garai bat da hori, ordea (Hiriart-Urruti hil eta Lehen Mundu Gerra amaitu ondokoa), eta beste lekua (Bizkai-Gipuzkoetz ari da hor, nagusiki, ez Iparraldeaz). Arana eta Azkue, ondo ezaguna denez, bere zirkulutik kanpora utziak ditu Hiriart-Urrutik goiz asko: beste giro batean ibilia da bera, eta hori esatean ez gara soilik giro politikoaz ari.

<sup>27</sup> Kurioso da Elizanburu *Innocentius* anaia mutu ageri dela, kasik, hizkuntza-kontaktuaren ondorioez. 1889ko eta 1890eko bere bizpahiru liburuxken argitan ondorio batzuk (interferentzia, mailegutza) ez zaizkio kaltegarri iruditzen, eta beste galera-modu bieci (euskaraz «gaizki» mintzo direnak ugaritzeari; euskaraz egitetik erdaraz egitera pasatzen ari diren gizatalde zabalei) erreparatu ere ez die egiten.

<sup>28</sup> Albert Constantin medikua, esate baterako, multzo horretan sartzekoa dugu bete-betean.

eta hiztun beraren ezpain-lumetan, baina aski bizirik daude han-hemen.<sup>29</sup> Interferentzia da, garaiko eskualtzaleen dokumentuetan, gehien aipatzen (eta, aurrerago azalduko denez, gehien deitoratzen) den fenomenoa. Zenbaiten kasuan, badirudi interferentzia lexikalera mugatzen dela. Interferentzia lexikal sendo hori lehendik ere aktibo izana da Iparraldean. XVIII. mendearen bigarren erdialdekoak dira, esate baterako, euskara “bastart”-ari buruzko kezakak, gaitzespenak eta argudio-bideak, Urkixok bere garaian ongi azalduak (Urquijo 1925: 153-8). Indarrean dago beraz gertaera soziolinguistiko hori, hazpandarra idazten hasten denerako. Aspaldikoa izanik ere indar berriaz ageri da ordea 1895etik aurrera, hainbat idazleren aipamenak lekuko.

### III.1.1. Interferentzia eta kode-alternantzia gizarte-giroan

Gatozen lekukotasun horietara, hazpandar kazetaria hartuz eskumutil. Honela dio Hiriart-Urrutik 1896an, interferentzia kontuez diharduela:

Ene buruarekin buruz buru eleketa nindagon: Pauvre basque! Gaixo eskuara! Nork, noiz arte, nola begiraturuko hau, osoki galtzetik? Frantses eta kaskoin solas bihurri batzu baizik ez duzu entzuten, asko eskualdunen ahotik. Nehor ez da gehiago eskuara garbiz mintzo. (...) Alegia eskuaraz mintzo direnean ere, beti edo ardura frantximant hitza dariozkate”. Interferentzia lexikalen adibide zehatzak eskaintzen ditu zenbaitetan, zertaz ari den azaltzeko: “Jainkoa deitzen dugu *Jauna*; Jesu-Krixto, gure *Jauna*. Salbatzailearen ama deitzen dugu *Andre-dena* Maria. Egungo jaun eta andre batzuentzat ez dire izen hoik aski eder. Ama Birjina eta Jainkoa bera baino gehiago dire. Emozute izen: «Monsieur, Madame, Mademoiselle». Eta hori ez bakarrik frantsesez mintzo zaskiotenean. Eskuaraz ere horrela nahi dire deituak izan (“Pauvre basque!”, *Eskualduna* 182, 1896-9-11, in Alzibar 2004: 35).

Interferentzia gehienak lexikalak izanik ere, bada tartean bestelakorik. Guztien (lexikalen eta bestelakoen) berri ematen saiatzen da Hiriart-Urruti hurrengo pasartean:

Batek erranen derautzu: «Nola ekartzen zira?» (Comment vous portez-vous?), errateko orde laburkiago eskuaraz: «Nola zira?» Zer diozue nik dakidan etxeoandre batez, bere seme haur batez mintzo zelarik zionaz: «Drole da; nere haurra *cependant* orai arte beti *assidu* izan da eskolarat». *Assidu* hori behar zuten entzun gure etxeoandarearen amaso zenak! «Probable» da etzuela «du tout» konprenituko. Bertze andre bat nihaurek neure beharrez entzun dut erraten: «Jaun hunek *introduisatuko* gaitu barnerat». Barka otoi, eskualdun menditar gaizoak, ez balin badakizue zer den *introduisatzea*. Lehengo eskualdunek erraten zuten horrentzat «sartzea, sarraraztea». Eta holako zenbat, zenbat! Orotakoa da. Bertze orduz «agur» eta «bai zuri ere» edo “Jainkoak dizuela egun on, gau on!», erraten zen tokietan adituko duzue: “Bonjour, jauna; bonsoir, Monsieur le cure”. Ez dakit ez direnez are bitxiago mezen oihu egiteko hizkuntza batzu; hala nola: «meza bat Monsieur eta Madame edo Mademoiselle holakoaren partez”. Orok bardin ongi har lezakete: «meza bat holako eteko-nausiaren edo etxeoandarearen izenean»; «holako izeneko jaun-andrek emanarazten dutena», edo holako zerbait.. eskuaraz, karanba! (“Pauvre basque!”, *Eskualduna* 482, 1896-9-11, in Alzibar 2004).

<sup>29</sup> Aldiz, hibridazio kontua oso da gertaera exotikoa, baldin halakorik gertatzen ari bada: bidenabar baizik ez da aipatzen eta, orduan ere, belaunez belauneko transmisio-indarra lukeen fenomenoaz baino areago une eta hiztun jakinen baitako interferentzia gotorra adierazi nahi dela dirudi. Ez koine eta ez pidgin berezirik sortzen ari da, luze-zabal, Hiriart-Urrutiren garaiko Ipar Euskal herrian.

Eskuara garbiaren galera da interferentzia, Hiriart-Urrutirentzat. Jakin badaki, mailak eta mailak daudela galera horretan ere. Badaki kontaktu-aldi zaharragoetan ere aldea dagoela intentsitatez eta iraupenez. Konturatzen da hainbat interferentzia etxekotzen ari dela, interferentzia lexikaetik mailegurako jauzia eginez. Horrela dio hazpandarrak:

Eskuara garbiz mintzatu nahi lukenak erran lezake: «Gure bihitegiak, belartegiak ezin handiagoak dire». Bainan enormiak? Hori da eskuaraz horribleki parlatzea. Ez nuke zin egin nahi parlatzea ez dela egungo eskualdun askoren eskuara. Behinik behin «horrible» hori Xuberoko aldean aspaldi eskuarizat dabil. Bainan ez dugu laster, guk lapurtarrek, ez eta garaztarrek xuberotarrei huntan zorrik izanen (“Pauvre basque!”, *Eskualduna* 182, 1896-9-11, in Altzibar 2004: 35).

### III.1.2. Hiriart-Urrutiren ikuspegia bere garaiko interferentziez

Zer diote Hiriart-Urrutik eta bere ingurukoek interferentziaz eta, oro har, hizkuntza-ukipenaren ondorio linguistikoez? Zer bide hobesten du Hiriart-Urrutik? Erantzuna argia da: beti bateko jarrera ageri du gai horri buruz. Honela dio Hiriart-Urrutik 1891n, *Eskualduna* kazetan egiteko asmoa duen lanaren aitzin-azalpenez har litekeen dokumentuan:

Eskuara garbiz izkiria dezagun. Horrek ez du erran nahi frantsesetik hartu hitz guziak baztertu behar ditugula; batzutan hitz arrotz horiek, polliki sartzen direlarik, gatz berezi bat badute, bertzek ez luketena; hortan ere hein bat atxikitzeke dela, bixtan da. Bainan hitzak ez dira mintzaiaren alderdi bat baizik; hitzak nola josten diren elgarri, hortan da mintzai bakoaren segetua. Eskuarazko hitz garbiz, askok, uste gabe, erdal-saltsa izigarria egiten daukute, heien hitzen arrimua arrotza dela ohartu gabe (Lafitte eta Intxausti arg., 1971: 31-32).

Labur bilduz: idatzizko jardunari dagokionez, eta plano formal edo erdi-formalean ari izanik, eskuara garbiz egiteko proposamena da Hiriart-Urrutirena. Garbitasun hori ez dago batez ere hitzetan (“horrek ez du erran nahi frantsesetik hartu hitz guziak baztertu behar ditugula”). Joskeran edo, nahiago bada, morfosintaxian zentratzen du Hiriart-Urrutik *eskuara garbia*: “hitzak nola josten diren elgarri, hortan da mintzai bakoaren segetua”. Konturatzen bagara, ez da hain gauza berririk esaten ari. Eskueran dituen eredu ezagun biren erdibidean kokatzen da bera, iritiz eta jarreraz: Jean Duvoisinen eta Michel Elizanbururen erdibidean. Biek diote joskera jatorri errespetu argia, baina oso neurri diferentean baliatzen dira bata eta bestea maileguzko hitzez eta azken orduko interferentzia lexikalez. Erdibide bat proposatzen du horretan Hiriart-Urrutik: hori da bere iritzi-jarrera, hil arte aski fermuki defendatuko duena.

Oreka modu baten bila dabilelarik, gizarte-urak punta-mutur batera doazela iruditzen zaio. Punta-mutur hori ez du gogoko, eta aurre egiten dio joera horri: “zer ez da entzuten? Hemendik *promes*, handik *disposizione*. Hots, erogarri da”. Antzera dihardu beste hainbatetan: “Nardagarri da; eta ez naiz harritzen egun batez nere ezagun jaun eskualdun, egiazko eskualdun batek haur ttipi eskualdun ume bat buruz buru eginik aditu zuenean erraiten: “Bonjour, Monsieur», ihardetsi baitzion: “K... ka hire”. Hiriart-Urrutik ez du uste hizkuntzaren beraren muga-baldintzek hartaritzen dutenik hiztuna. Interferentzia horietariko asko ez dira beharrezko: “Bertze hitzik ez denean, ahal denari lotzen da; bainan eskuarazko hitz garbi orok dazkitenak utzi-

rik, zertako ibil frantses hitz batzuen ondotik?” (“Pauvre basque!”, *Eskualduna* 182, 1896-9-11, in Altzibar 2004: 35).

Hazpandar kazetariaren irizkide dira, horretan, iparraldeko idazle asko. Bai idazle eskualdunak eta bai, are, frantsesez idazten duen zenbait. Ezin eztabaidatuzko *factum* soziazat ageri da interferentziaren kaltegarritzko gertaera hori M. Petit-en lanean, 1897ko Euskal Tradizioaren gorazarrezko festetan irakurritakoan: “D’aucuns l’appelleront décadence, puisque la langue va se dénaturant chaque jour de plus en plus, s’encombrant de mots ni français ni euskariens” (Petit 1899). Asko dira, gehiengo zabala itxuraz, ikuspegi ezkor horri heltzen diotenak. Badaki Hiriart-Urrutik, halere, idazle eta gogoetagile guztiak ez direla iritzi bereko. Zenbaiten ustean, izan ere, euskara ez da mordoilotzen ari, garbitzen (eta indartzen) baizik. Hala ihar-detsi berri dio, antza denez, ezagun batek: “Eskuara galtzera doala, zer derasaguzu? Ez duzu bada ikusten eskuara ez dela izan behin ere azkarrago eta garbiago?” (*Eskualduna* 182, 1896-9-11, in Altzibar 2004: 35). Gero eta hizkera-molde duinagoa, gero eta landu-jasoagoa, irakur liteke *Eskualdun* kazetan eta beste hainbat testutan: hori dela-eta, interferentziaren gainbeherako ikuspegi soziologikoa bitxi gertatzen zaio bati baino gehiagori. Hazpandarra ez dator bat, inola ere, ikuspegi baikor horrekin;<sup>30</sup> irizkide ditu, ikuspegi etsi horretan, iparraldeko euskaltzale gehienak.

Garbitasun beharrean dago eguneroko euskara arrunta, Hiriart-Urrutiren ustean. Eskualdun-jende xeheak ezpainetarutzen duen mintzaira oso dago frantsesak bere mendean hartua. Mugak jarri behar zaizkio, aurrez aurre eta jakinaren gainean, erdal uholde horri. Gogoratu goragoko “horribleki parlatze” hura. Euskaldun elebidunek dute, batez ere, garbitasun-mugak ongi zaintzeko beharra: “Deus ez dakitena ez dire holakoei hain ongi ohartzen, nola jakitate izpi bat dutenak. Bi mintzaiak dazkitenei loakokete bakotxa bere zedarrietan egonaraztea. Mintza eskuaraz edo mintza frantsesez alde bat; bainan ez biak nahas” (*Eskualduna* 182, 1896-9-11 in Altzibar 2004: 35). Elebidunei eransten dien karga hori badaki hazpandarrak, ongi asko, elebidun jantziei eransten diela praktikan. Protoelite euskaltzale baten eskutan jartzen du berak, azken finean, “euskara ona”ren defentsa. Horregatik egiten die hain harrera gozoa<sup>31</sup> Azkueri eta bere modukoei, aldizkariaren bidez euskara garbia zabaltzen saiatzen direnei: “Berritan hasia du agerrarazten bere kazeta bipila, eskuara garbi, gozo, ederrez betea bururen buru. Haren kazetak *Eskualzalea* du izena eta ohorezki dakar izen hori. Jainkoak lagun dezala, luzaz eskuararen eta Eskual Herriaren onetan!” (“Eskuara Espainian”, *Eskualduna* 536, 1897-9-24, in Altzibar 2004).

<sup>30</sup> Gauza bi dira, funtsean, bere *eskuara garbia* eta zenbaiten *eskuara garbia*. Garbitasun-eredu biz dihardute hor, batak (Hiriart-Urrutik) eta besteek. Zer dago, zuzen interpretatzen bada iturria, beste zenbaiten baieztapenaren atzean? Nolatan diote horiek, inoiz baino eskuara garbiagoa egiten dela? Nork egiten du hala, zertarako eta non? Erantzun posible bakarra datorkit burura, hipotesi gisa: idatzizko nafar-lapurtera elaboratua. Hori ere hizkuntza-kontaktuaren (iparraldeko euskalkien, batez ere behe-nafarreraren eta lapurteraren, kontaktuaren) ondorioztat har liteke noski. Beste kontaktu modu bat da hori ordea: besterik du kontaktu modu horrek jardun-gunea, besterik agerbidea eta oso beste-lakoa harreman-sarea. Besterik du, azkenik, xedea eta belaunez belauneko transmisio-perspektiba.

<sup>31</sup> Hasiera batean egin zien harrera gozoa, ez handik urte gutxira. Azkue eta beste hainbat euskaltzale gero eta urrunago sentitu zituen Hiriart-Urrutik, ezaguna denez. Urruntze horrek iturburu asko ditu: tartean, batak eta besteek hizkuntza-plangintzaren alorreko lehenetasun-zerrenda diferentea, zenbaitetan kontrajarria, izatea. Hizkuntza-kontaktuaren esparrutik kanpora eramango gintuzke iturburu horien azalpenak, eta alde batera utziko dugu gaia.

Euskaltzale askoren iritzia da Hiriart-Urrutiren goiko hori. Horixe da Jean Broussain batena, besteak beste. Garbi dago ordea, ezer garbirik baldin badago interferentzien eta hizkuntza-garbitasunen alorrean, aldian behingo iritzi-jarrera bateratuek ezer gutxi balio dutela eguneroko praktikaren ondoan. Iritzi berekoa da Broussain, baina Hazparneko jaun medikuak ez daki irizpide hori bere lagun kazetariaren trebeziak eta etekinez aplikatzen. Ez da gai. Are gehiago: euskara garbitzeko soluzio konkretuak ematerakoan urrun, oso urrun kokatzen da jaun medikua *Eskualdun* kazetaren bidegile nagusiaren soluzio praktikoetatik. Aldian aldiko aplikazio praktikoak markatzen eta definitzen ditu, argudio teorikoen gaintik, benetako iritzi-jarrerak. Aplikazio praktikoa, berriz, testigantza pertsonalean islatzen da. Emaiozun testigantza horri gain-gaineko begiratu.

### III.1.3. Hiriart-Urrutiren testigantza pertsonala, interferentziaz eta kode-alternantziak

Zer euskara modu zerabilen hazpandar kazetariak, eguneroko jardunean? Zer egin zuen berak, hitzez eta idatziz, interferentziazko aukera baten aurrean? Ageri al da hibridazio-zantzurik bere lanean? Baliatzen al da, praktikan, frantses-eskuaren arteko kode-alternantziak? Hiriart-Urrutiren hitzeko jardunaz ez dugu ebidentziarik, bai aldiz idatzizkoaz. Idazle joria izana dugu Jean, eta bere langintza jori horrek gutxi bezalakoa hedadura izana du garai hartako idazle-irakurleen artean. Idatzizko jarduera horren testigantzara mugatuko gara, beraz, atal honetan.

Ez du Hiriart-Urrutik hibridazio-kutsu handirik ageri bere idazkietan. Kontsekuentea da horretan, oso, bere iritzi-jarrerekin. Euskara-euskara da bere mintzaira: eskualdun gehienek erraz eta zabal ententitzeko moduko eskuara. Ez dago hor *creole* edo *pidgin* moduko produkturik tartean. Bada bere idazkietan, aldiz, interferentziaren (interferentzia lexikalen, oso gutxitan bestelako) arrastorik: ez da erraza, baina bai egingarria, halakorik topatzea. Ondotxo errazagoa da, azkenik, hazpandar kazetariaren lanetan *code-switching* edo kode-alternantziazko adibiderik dokumentatzea. Goazen bietara, azkenekotik abiatuz.

Maiz baliatzen da Hiriart-Urruti, euskaraz ari delarik idazten, *code-switching* delakoaz. Adibide soil batzuek eman dezakete argien alternantzia horren berri. Erdarazko izen-sintagma bakarra tartekatzen du hazpandarrak zenbaitetan, euskara hutsezko hitz-katearen altzoan. Horrela egiten du, esate baterako, adibide xume honetan: “Iduri du gero ez dakit zer! *Olla podrida*” (*Eskualduna* 482, 1896-9-11). Hori baino erdaratik sintagma-zati zabalxeagoz baliatzen da, ordea, maizenik: “Zuri bai? Niri ez. Chacun son goût” (*Eskualduna* 471, 1896-6-26), “Azkenekotz (frantximantak diona, «pour la bonne bouche») beiratu dugu don Azkue” (“Eskuara Espainian”, *Eskualduna* 536, 1897-9-24, in Altzibar 2004), edota “gero zuek niri erran, ez dela galtzen ari eskuara? Pauvre, pauvre basque!” (*Eskualduna* 482, 1896-9-11). Kasu bakanetan, azkenik, aparteko afizioz saiatzten da *code-switching* horri bere zukurik ederrena ateratzen. Ikus, adibidez, 1902ko pasarte hau:

Dio behin ontsa jostatu dela; bazter ederrik ikusi ere ba; (...) mendi hegal gozo, itzalpe eta soropil ezin utzizko, nolakoak, eta zenbat! Joli pays, oh, oui! Eta jendea? Jendeak, mon ami, a, c'est autre chose. Zozoak ez naski oro tout a fait ... bainan kasik hala iduri. (...) Bi sorbaldak altxatuz, nolazpeit adiarazten dio jaunari, ez dakiela zer galda-

tzen dion. *Pauvres gens!* (...). Eskualduna erlisioneari atxikia dea ba? Eskuaraz ikasten dutuia katixima eta otoitzak? *Mauvais, mauvais; ken eskuara fuera.* (...) «*Nous y reviendrons.*» (“*De Musculdy à Saint-Esteben*”, *Eskualduna* 1902-8-15, in Altzibar 2004).

Badu hori baino jauzi handiagoko *code-switching* pasarterik ere. Adierazgarria da honako hau:

Deus ez da bitxiagorik, ez nardagarriagorik, nola baita Eskual Herriko zenbait herritan aditzea igandeetan neskatxa gazteak elizan kantuz *frantsesez*. Eta zer kantuak! Eta non! Iainko maitea! *Ce qui etonne le plus en ceci, ce n'est pas l'aberration de ses saintes femmes; C'est la patience ou l'indifference de certains cures* (“*Zerk du galtzen eskuara?*”, *Eskualduna* 530, 1897-8-13, in Altzibar 2004).

Ez dago dudarik: elebiduna da Hiriart-Urruti eta maisukiro darabil frantsesa hainbat situazioetan.<sup>32</sup> Badaki bere irakurle askotxok ere badakitela frantsesez. Irakurriz, bederen, gai direla frantsesezko esapideak jasotzeko. Badaki, orobat, frantses gehigarri osaturiko esapideok, zenbaitetan, euskara hutsezkoek baino adierazkortasun handiagoa dutela une horretako gizarte-giroan. Badaki, azkenik, kriptohizkuntzaren funtzioa betetzen duela frantsesak zenbaitetan, bere testuetan: apaiz-jendeak erraz ulertuko dion zenbait esaldi kiribil, irakurle arruntak ez ulertzea nahiago lukeena, frantses-mintzaira dotore eta korapilotsuan ematen du. Abantaila da beretzat *code-switching* hori: azaldu nahi duena nori azaldu nahi dion, eta zer neurritan, jakinik abantaila da kode-alternantziak egoki baliatzea. Hori dela-eta, euskararen kaltetan gabe frantsesezko hitzak, izen-sintagmak eta are hortik aurrerako hitz-moldaera konplexuagok txertatzen ditu euskal testuetan, probetxugarri direla deritzanean.<sup>33</sup> Modernoa da, horretan, Hiriart-Urruti: ikuspegi komunikatiboa ez da, inondik ere, 1970 inguruan jaioa.

Ikuskizun dugu, bestalde, Hiriart-Urrutiren idazkietako interferentzia: zenbaitetan baliatzen den interferentziak, eta noiz-non. Leku meharra dute interferentzia lexikalek Hiriart-Urrutiren idazkietan. Are meharragoa, hartaz jakitun garen neurrian, bestelako interferentziek: fonetikoek, morfosintaktikoek eta semantikoek. Hartan saiatu garen arren ez dugu, egia esan, halakorik asko bilatu bere testuetan. Izan bada halakorik, jakina, eta ez dago zertan harritu: ez dago hiztun-elkarte txiki-txikiaren hiztun elebidunen kontestuan interferentzia horietaz zeharo libratzen den idazlerik. Kanpoko iturrietatik elikatzen gara gehienok hainbatean, idatzizko jardunean bereziki, eta kanpoko elikadura horrek bere ordainsaria ezartzen digu maiz. Hiriart-Urruti ez dago inpaktu horren ondorioetatik zeharo libro. Berrikuntza teknologikoen inpaktuari dagozkion sorkarrietan nabarmena da hori, bereziki: *telegrafa*, *dinamita* eta antzekoetan antzematen da hori argien. Halakoetan ere badaki, ordea, *beribil* modukorik sortzen. Oro har, aski berekasa dabil: beregaintasun handia ageri du hazpandar kazetariak, kontzeptu-dentsitate handi samarreko formulazioak ere erdal makuluen behar handiegirik gabe adierazteko. Ideia hartu ohi du berak oinarri,

<sup>32</sup> Elebiduna ez ezik eleaniztuna ere bada, izan, *Eskualdun* kazetaren artikulugile nagusia. Jakin badakigu, hasteko, frantses-eskuarez gainera alemanez ere badakiela Hiriart-Urruti: aleman-irakasle da Larresoroko apaizgaitegian. Latinez eta grekoz ere jakin behar du, ikasbide sakroklasikoen bidetik. Gaztelania ere, bistan da, ez zaio erabat arrotz gertatzen. Ez dakigu, halere, frantses-euskaraz aparteko beste lau hizkuntza horietan noraino den trebe.

<sup>33</sup> Gaztelaniazkoak ere txertatzen du inoiz edo behin. Ingelesaren inpakturik, aldiz, ez da Hiriart-Urrutiren idazlanetan ageri. Ez kode-alternantzia gisa, bederen.

jakin-iturria erdarazkoa duenean: ideia, ez ideia horren adierazle den erdal hitza edo hitz-katea. Jokabide horri eskerrak, ondotoxoz interferentzia-arrisku ahulagoa izana du *Eskualdun* kazetaren eragileak. Aparteko doaia erakutsi izan du horretan Hiriart-Urrutik. Doai handia izanik ere horretan, ez da interferentziarik gabea bere produzio idatzia. Arrisku hori nozitua du berak ere, nahiz eta arrisku horren sarean noiz-non erortzen den zehazten zail izan. Interferentzia hutsen eta maileguen arteko muga aski lausoa da, jakina, Hiriart-Urrutiren kasuan ere.<sup>34</sup> Ustez interferentzia dirudien hainbat elementu mailegu ezaguna dela pentsatzeko motiborik ez da falta. Ongi erroturiko maileguei ez die aparteko eragozpen-trabararik ezartzen berak: horri eskerrak testu naturalak, garbizaletasun molde gehienetatik aski urrun dauden testu naturalak, dira bereak. Naturaltasun horrek bihurtu izan du bere idaztanka hain ulerterraz eta hain erakargarri.

Labur bilduz: interferentzia, lexikala eta bestelakoa, eskualdunen artean indar biazin zabaltzen ari den garaikoa dugu Hiriart-Urruti. Gertakari horren jakitun da bera eta, batere gogoko ez duelarik, joera horri aurre egiten saiatzen da buru-belarri. Arrazoizko argudio-bidea erabiltzen du horretarako, batetik. Bere testigantza praktikoa eskaintzen du, bestetik. Interferentzia gutxiko testuak dira bereak. Halere, zenbait kasutan ez dio bide horri ihes egiten: interferentzia-poxi bat onargarri eta are mesedegarri dela iruditzen zaio. Oro har nahiago du berak, ordea, eskuara eta frantsesa ongi bereizirik atxiki, zein bere moldaeraz, bai mintzatzeko eta bai idazteko orduan: frantsesez egin nahi edo behar duenean frantses onean egin ohi du, eta eskuaraz jarduterakoan eskuara garbian. Salbuespen bakarra egiten du hazpandar kazetariak, irizpide nagusi horretan: kode-alternantzia da salbuespen hori. Segun zertaz diharduen, eta begiz jotako irakurleak nor dituen, zuzen eta egoki deritzo *code-switching*-az baliatzeari. Egoki deritzo kode-alternantziari eta, kontestu-baldintzen arabera, egin ere maiz egiten du halakorik. Hori ez da defektu-akatsa, Gumperz-en garaitik aurrera ongi aitorturiko abildadea baizik: “code switching is a communicative skill, which speakers use as a verbal strategy in much the same way that skillful writers switch styles in a short story” (Gumperz eta Hernández-Chávez 1972: 98). Bistan da, ordea, ikuspegi horrek perspektiba linguozentrikotik psiko- eta soziozentrikora garamatzala.

### III.2. Kontaktuaren ondorio psikolinguistikoak

Apreziazio psikolinguistiko finez beterik daude Hiriart-Urrutiren kazetari-lanak. Apreziazio partikular horietatik abiatuz jeneralizazio minimo batera iristea da atal honen asmoa.

#### III.2.1. *Eskualdunen nagusitasun-moldaera gizarte-giroan*

Zail da, zinez, Hiriart-Urrutiren eta bere inguruko idazleen aipamenetatik abiatuz zehaztaperik psikolinguistiko jeneralik egitea. Zertzelada partikularregiak dira bere apunte asko. Hipotesi gisa izango bada ere badugu, guztiarekin, zertzelada horiek perspektiba teorikoan proiektatzen hasteko modurik. Horrela, Fishman-en za-

<sup>34</sup> Orduko eta lehenxeagoko dokumentazio zabalaren trataera informatikoak bakarrik argitu dezakeen puntua da muga kontu hori; orduan ere aski era tentatiboan argitu liteke hori, gaurkoz.

tiketa laukoitz ezagunetik abiatuz lau giza multzo nagusi ageri dira Eskual herrian, XIX. mendearen erdi inguruan,<sup>35</sup> diglosia-izaerari eta hiztunen ele biko nagusitasun-moldaerari dagokionez.<sup>36</sup>

- a) Zenbait eskualdun, Basanafarroan eta Zuberoan bereziki, *diglossia without bilingualism* egoeran ageri da. Euskaldun huts dira hiztun horiek: eskual elebakarrak. Bertako elebidunak (apaiz, mediku, errient, kargudun, jaun-andere zenbait...) dituzte erdal munduarekiko zubi. Ugariago dira nesken artean, eskolara sarbide handixeagoa eta (soldadutzaz, lan-kontuz) herritik kanporako lotura duten mutilen artean baino. Haurren artean batetik, eta aitatxi-amatxi zaharren artean bestetik, dira hiztun horiek nagusi.
- b) Beste zenbait eskualdunek *both bilingualism and diglossia* ageri du. Ez da erraza, multzo horretan euskal- eta erdal-elebidunen artean bereiztea: denetik dago. Eguneroko bizimoduak berekin dituen jardun-esparru arruntei dagokienez, hitzeko jardunean euskal-elebidun dira gehienak, ez parez pareko elebidun; are gutxiago erdal-elebidun.
- c) Beste egoera batean dago hainbat eskualdun: *bilingualism without diglossia* delakoan. Hitzeko jarduera arruntean erdal-elebiduna da horietariko asko. Hiztun horien ezpainetan antzematen dira interferentziak argien.
- d) Frantseseko elebakartasunean kokaturik dago, azkenik, Eskual herriko hiztun sail osoa: *no bilingualism* eta *no diglossia* bizi dute horiek. Eskuaraz ez dakite hitz egiten; hainbatek ez du ulertu ere egiten.

Lau multzo horiek beroriek ageri dira gero ere: adibidez 1900etik 1915era arte, Hiriart-Urrutiren zahartzaro goiztiar eta heriotza-aldian. Kontuak errazegi atera litezke hortik: “denetarik zegoen lehen, eta denetarik dago gero: ez da, beraz, aldaketa handirik gertatu”. Kontuak ez dira ordea horrela: lau multzo horien pisua eta hedadura aldatuz doa, nabarmen, 1860 ingurutik 1910 ingurura doan mende-erdian. Era batera ziren kontuak, hazpandar kazetaria sortu zenean: oso bestelako egoera da nagusi, aldiz, Gerla Handiaren atarian. Hiztun multzo batzuk indartuz doaz oro har, eta beste zenbait mehartuz: neurri-izariz aldatu egin dira lau multzo horiek, hiztun-sail osoak irabaziz batzuek eta nabarmen galduz besteek. Hiztun sail gehienetan, horrezaz gainera, aldatu egin da eskuara-kaskoin-frantsesen banaketa soziofuntzionala. Are gehiago: eskuarazko mintzajardunaren barnean (idazlangintzan bereziki), etxetik eta herritik jasotako euskalkitik harreman-sare zabalagoetarako nafar-lapurtar *Hochsprache*-ra daraman bilakaera ageri da bertako protoelite eskualtzalearen (batez ere maila batetik gorako apaizen) artean. Aldaketa horien oihartzun da Hiriart-Urruti.

### III.2.2. Hiriart-Urrutiren ikuspegia, hiztun garbien galeraz

Hiztun garbiak (elebakarrak eta euskal-elebidunak) galtzen ari dira, eta erdal-elebidunak zein frantses elebakarrak ugaritzen. Joera hori ez du Hiriart-Urrutik begi onez ikusten. Eskuarazko elebakartasuna ere ez du, ordea, gogoko. Goiko lau multzoen ar-

<sup>35</sup> Zehazkiago esanik, 1830 ingurutik 1880 arteko epealdi zabalean.

<sup>36</sup> *nagusitasun-moldaera* esatean U. Weinreich-en 1953ko *dominance configuration* adierazi nahi da, ez Fishman-en handik hamar-hamabost urtekoa: izen berekoak izanik ere aski diferenteak dira biak.



tean bigarrena du Jeanek, askogatik, nahiago. Eskualdun garbia du amets, batetik, baina frantsesez ere txukun moldatzen den eskualdun jantzia iruditzen zaio etorkizunerako eredu-garri. Bata eta bestea uztartzen zailak dira ordea: frantsesez ere hainbatean moldatzen den eskualdun jantzia nekez gerta liteke, hazpandar kazetariari bizi izatea tokatzen ari zaion gizarte-giroan, eskualdun garbi. Frantsesa ezinbesteko duen harreman-sareetan murgildurik bizi denak, ez bestek, lortzen du normalean frantsesez ongi moldatzea. Frantsesez bideratzen diren rol-harremanetan (rol horiei datxezkan situazio komunikatiboetan) parte hartzea eskatzen du horrek, interakzio horietan ohikoak diren mintzagaiak eta kontzeptuak, terminologia eta errepertorio berbala bereganatuz. Erdarazko rol-harremanen errepertorioa euskarazkoetatik ongi mugatzen eta isolatzen ez den neurrian, bateko hizkera-moldeak bestean (euskarazkoan) eragiten du. Interferentzia eta kode-alternantzia ugaritzea dakar konpartimentazio falta horrek, batetik, eta erdal-elebitasunera makurturiko nagusitasun-moldaera indibiduala bestetik. Hori da Hiriart-Urrutiren korapiloa, erabat askatzera inoiz iritsiko ez dena.

### III.3. Kontaktuaren ondorio soziolinguistikoak

Bere hartan al dirau eskuara-frantsesen erabilerak Eskual herrian, Hiriart-Urrutiren garaiko gizarte-bizitzan? Eskuaratik frantseserako mintzaldatzea gertatzen ari al da? Hala baldin bada, nola ageri da mintzaldatze hori (luze-zabal ala parte mugatuan) eta non (espazio fisikoan, soziofuntzionalan)? Nola ageri dira bere aurrekari, bidelagun edo ondorio ezagun ditugun frantsesaren hedapena batetik, eta euskara indarberritzeko saioak bestetik? Zer iritzi-jarrera pizten ditu gertakari multzo horrek? Nola islatzen eta nola hezurramitzen da hori guztia hazpandar kazetariaren jardura pertsonalean?

#### III.3.1. *Gizarte-bizitzan zer*

Begien bistako datu zentraletik abiatu behar da, perspektiba soziozentriko honi heltzerakoan. Eskuarak ez du, Hiriart-Urrutiren bizi-denboran, Eskual herriko mintza- eta idatz-jardura osoaren zati bat baizik estaltzen. Eskuara ez da aspalditxetik eskualdunen hizkuntza bakarra, beren adierazbehaz guztiak asetzen dituen. Are gutxiago harreman-sare eta situazio guztietan, hitzez eta idatziz.

Diglosiazko konpartimentazio-egoera aski egonkor batetik dator eskuara. H funtzio gehienak (ez guztiak: cf. eliza-esparrua) bestek (kaskoinak garai batean; frantsesak gero eta zabalago) bereganatuak zituen diglosia zaharrea. Baina eguneroko mintzajardun arrunta, hiztun-elkarteari nortasun betea eranstean ziona eta ama-hizkuntzaren belaez belaezko jarraipen osoa segurtatu ohi zuena, kontrolpean zuen eskuarak. Diglosiazko konpartimentazio hori ahultzen eta birrintzen ari da Hiriart-Urrutiren garaian. Batez ere eskuara hiztun-talde trinkoen eguneroko mintzabide nagusi izana den herribildu nagusietan eta, oro har, modernitateari estuago loturiko jardun-guneetan.

Ordura arteko diglosia molde tradizional horrek, aparteko babes-indarra eta belaez belaezko iraupen-aukera emateaz gainera, L esparruko soziolekto<sup>37</sup> izaera

<sup>37</sup> Soziolekto ala domolekto? Ez da hau xehetasun horietan sartzeko lekua. Bada ordea garrantzizkoa, euskararen bilakaera molde desberdinak xehekiro arakatu ahal izateko bihar edo etzi. Bego bere horretan, oraingoz.

erantsia dio ordea eskuarari. Gero eta markatuago ageri dira gizartean, soziolektokutsu hori dela medio, eskuaraz mintzo direnak. Eskola-prestaera apaleneko herri-tarrak, diruz estuen dabiltzanak, lanbide tradizionalenei josiak eta, oro har, gizarte-eskalan behereneko estratu-geruzan kokaturik daudenak mintzo dira sarri eskuaraz. Campionen hitzetan esanik, “aujourd’hui, (la langue basque) c’est une langue bien humble, le parler familial de quelques milliers de paysans et de pêcheurs” (Campion 1899: 414).

Diglosiazko egoera horrek egonkor izateari utzi dio Hiriart-Urrutiren garaian: hori da berritasuna. Etxean eta auzoan, lagunarte hurbilean eta kale-bizitzan berekin zuen nagusitasuna galduz doa eskuara, frantsesaren mesedetan. Ordura arte (demagun, 1830 ingurutik aurrera) frantsesaren *language spread* izandakoa, frantsesaren L2 moduko hedapena alegia, fase berrian sartu da: *language spread* izandakoa *language shift* edo luze-zabaleko mintzaldatzea bilakatu da. Horren ondorioz, eskuararen belaunez belauneko jarraipen-katea eteten ari da: erabat edo nagusiki eskuaraz egiten zen eskualdeetan, jardun-guneetan, harreman-sareetan eta situazioetan hala egiteari utzi eta frantsesaz egiteari ekin zaio. Fenomeno horren jakitun eta gogoz kontrako ikusle dugu Hiriart-Urruti, bere inguruko hainbat eskualtzalerekin batera.

#### a) *Mintzaldatzea*

Mintzaldatze horren aipamen espresik ez da falta Hiriart-Urrutiren idazkietan. Gai horri aurrez aurre heltzen diotenen artean esplizituenetarikoa da hazpandar kazetaria. Hogeigarren mendeko hizkuntza-soziologiaren oinarrizko postulatuekin erraz uztartzeko gogoetak eskaintzen ditu halakoetan. “Gainez gain, oro hartuz, Eskual Herri guzia inguruan begiztatzen dugularik (...) aitorturen dautazue badoala eskuara galtzera tarrapatan. Arronkal(en) eta Izaba(n) (...) nere adiskideak (...) etxe berean ikusi zitue(n) horrela mintzo, adin arau; zaharrak eskualdun, bitartekoak eskualdun-español, gazteak (eskuara utziz) español garbi” (“Eskuara Frantzian”, *Eskualduna* 477, 1896-8-7).<sup>38</sup> Hazpandar kazetaria iritzi pertsonal hutsa ematen ari dela uste izan dezake norbaitek. Ez da horrela: askok, eta ikuspegi askotatik, berretsia dute urte-inguru haietan Hiriart-Urrutiren baieztapen hori. Ikus, adibidez, Pierre Broussainek handik gutxira adierazia:

Eskuara aiphatzen du(d)anaz ge(r)oz enitake e(g)on erran ga(b)a galtzeko irrisküan dela, Espainiako Eskualherrietan bereziki. Nafarroan eta Bizkaian, lehen eskuaraz mintzo ziin anhitz o(r)ai espáñolez mintzo da. Frantziako eskualherrietan nahiz gu(r)e mintzaia zaharra o(r)ai artio aski azkar den, hale(r)e zombeit lekutan galtzen â(r)i da, hala nola Endaian, Doniane-Ziburun, Donapaleun eta Maulen. Hiri horiitan badi(r)a haur franko aitamak eskualdunak tiuztenak eta eskuara ezta-kitenak (Broussain 1913, in Charriton 1985a: 219).

Euskararen galera territorialaz mintzo da hor Broussain: ordura arte eskuaraz egiten zen hainbat lekutan frantsesaz egiten da orain, gero eta sarriago.<sup>39</sup> Euskararen ga-

<sup>38</sup> Zail da zinez, Hiriart-Urrutiren aipamen hori irakurritz, Campionen *El último tamborilero de Erraondo* gogoan ez izatea. Bazekien iruinsenak zer zioen, mintzaldatzeari buruzko bere azalpen nobelatuan.

<sup>39</sup> Bibliografia zabala dago urte-inguru horietan, European bereziki, hizkuntza jakinen kontaktuzko ondorio nagusiez, esparru-mugez eta irabazi-galera territorialez: bai kanpo-mugen hedapen-contrakzioez

lera hori ez da espazio territorialean bakarrik gertatzen ari, ordea. Horrekin batera, eta bereziki, espazio soziofuntzionalean ari da eskuara “bere betiko lekua” galtzen. Elizan (eta bidenabar, fraide- eta serora-eskolak direla medio, hezkuntza-esparruan) ari da, bereziki, euskaratik frantseserako *language shift* nabarmena gertatzen. Espazio horretako galerak aparteko bihozmina eragiten dio Hiriart-Urrutiri. Ikus 1896ko bere aipamenok:

liburu baten bete banuke hemen erraiteko, Eskual Herriko elizetan eskuaraz mintzatzeari datxikola (...) Behar nintuzke aipatu eta nahi ere ba eskuarazko katiximak eta otoitz-liburuak, urte oroz gutitzen ari direnak, zeren egungo egunean zerbait eta norbeit direla uste duten buraso eskualdunek beren haurren eskuetan liburu frantsesak ikusi nahiago baitituzte, ezen ez eskuarazkoak, haur gaixoez frantsesa ez ongi jakinikan ere. Burasoak bezala huntan hobendun dire haurren eskoletako aitzindariak. Orotaz mintzo naiz; jaun errientez bezenbat edo gehiago fraidez eta sererez. Oraiko errientez eta errientez axola guti dute bada elizako liburuez. Bainan eskola giristinoetako aitzindariak zenbat frantses liburu ez dituzte sarrarazten gure eskualdun elizetan? Balakite ongi zer ari diren! (“Eskuara elizan”, *Eskualduna* 478, 1896-8-14).

Aldaketa handia ari da gertatzen, iparraldeko hainbat eskualdetan, eskuarak ordua arte aski berea izanikako H esparru bakarrean: elizan eta hari atxikitako eskola giristinoetan, bai eta batean zein bestean maiz erabiltzen ziren eskal katiximetan. Eskuaratik frantseserako mintzaldatze selektibo azkarra ari da hor gertatzen. Atzera doa eskara, eta gailentzen ari da frantsesa: baita neska-mutikoez kasik frantsesez ez dakitenean ere. Mintzaldaketa horrek *top-down planning* orenen ezaugarri nabarmenak ditu berekin: Pariseko goi-agintearen desio aitortua da, lehenbailehen eta ahal den neurrian mintzaldatze hori zabaltu eta osatzea.<sup>40</sup> Ez da goi-agindu espres hori

---

eta bai barne-esparruan erdal-uharteak sortzeaz. Ikus, esate baterako, Zimmerli (1891-99), Wackernagel (1904) eta Viatte (1908).

<sup>40</sup> Eliza-esparruko mintzaldatze behartuaren *top-down* izaera hori behar bezala estudiatu gabe dago. Honako puntuok kontuan hartzekoak dira, nolana ere:

- a) Euskara elizatik baztertzeko asmoak indarrean daude, jadanik, 1865ean: III Errepublika aurretik eskabide horixe egin zuen Duruy ministroak: «On remarque avec peine que le clergé basque continua à enseigner le catéchisme en basque, ce qui nuit à la propagation de l'usage du français». Eta ministroaren oharra: «Relever les points du territoire où le clergé exige le catéchisme en patois ou en langue étrangère, afin que j'en écrive aux évêques par le garde des sceaux (justizia ministroaz)» (Moreaux 1970: 508), in Intxausti (1972: 97).
- b) 1891ko liskarra, apezpikuaren eta apez eskualdun askoren (eta bertako protoelite eskualtzalearen) artean.
- c) 1896ko gorabeherak: «Dans son rapport du 22 avril 1896, Jules Deffes, préfet des Basses-Pyrénées, proposait au ministre des Cultes de la République Française, E. Combes, la suppression totale des sermons en basque, ainsi que du catéchisme basque, afin de combattre le triple inconvénient de la prédominance de l'idiome basque dans les églises du pays Basque: 1° empéchement de la diffusion de l'instruction, 2° puissance du clergé, 3° atteinte à l'idée de la patrie française. Il conseillait toutefois d'attendre un moment plus favorable, après les élections, pour prendre ces mesures» (Archives Nationales, F 19 5502).
- d) 1902ko inarrosaldia: «Ez ginuen sinetsi nahi; eta egia den bezala hemen aitortzeko gerla bat egundaino ez bezalakoa heldu zitzaukula ikusten ginuelarik, ez nahiz gerla hau guhaurek piztu ginauden, Eskualdun huntan, eskuaraz hanbat aipatu gabe. Bainan holetan egia da; Mauleko suprefet nahasiak ahoa betez omen derasa orori, Donibane Garazin erriente bilkura batean egun hoitarik batez goraki erran zuena: «Urtatsetik harat eskualdun apezak ez zirela gehiago haizuko

bakarrik, ordea, eskualdun-jendea hartara mugitzen duena: badago eskualdun horien “bere baitariko erdal gogoa” ere, elizan zein kalean; hori da Hiriart-Urruti bereziki mintzen duena.

Eragin instrumental nabarmenak ditu, azkenik, eliza-esparruko mintzaldatzeko selektiboak. Ordura arte gizaseme eskualdunetara osaturik zegoen apezkeriak ez du aurrez aurrerantz ezaugarri hori izan beharrik izango. Bere hitzetan esanik, “hemengo apezpikuek eskualdun herrietan ezartzen dituzte apez eskualdunak. Baionan berean ere badelakotz anitz eskualdun, ez dute nahi ahalaz ezarri apez biarnesik ez eta kaskoinik. Ez da errateko baizik gure apezpikuak ez direlarik alta berak eskualdunak, nolako arretarekin begiratzen dituzten eskual mintzaiaren zedarriak”. Mendeetako konpartimentazio-arau bat hausten ari da, 1896ko une horretan, bere begien aurrean.<sup>41</sup> 1902ko urritik aurrera etorriko diren goi-agintaritzako debeku lazgarriak ezin entendi litezke ongi, aldeztu aurretiko giro-aldatze hori aintzakotzat hartu gabe. Bereziki ernea da horretan Hiriart-Urrutiren begia.

#### b) *Frantsesaren eta euskararen hedapena*

Zer dio Hiriart-Urrutik hizkuntza-hedapenaz? Zer dio eskuararen hedapenaz eta, batez ere, frantsesaren hedapen ukaezinaz? Ezer gutxi dio hazpandar kazetariak eskuararen hedapenaz, lehen besterenak izandako (edo inorenak izan gabeko) pentzelarretan eskuarari leku bat eskuratzeaz. Ez da harrizkoa: atzera doa eskuara gizarte-bizitzaren jardun-gune gehienetan. Bereak izandako esparru gehienak (etxea eta lagunartea, auzoa eta lantegia, eliza eta kale-bizitza) galduz doa, eta modernitateari loturiko jardun-gune eta harreman-sare berriak frantsesak okupatu ditu hasieratik, ia erabat. Hori guztia horrela izanik ere, bada jardun-gune bat eskuarak bere hedapen-leku bihurtuko duena: kazetaritza. Hiriart-Urruti bera izango da, hein handi batean, Ltik Hrantz daraman hedapen horren eragile nagusi. 1903tik aurrera zabalduz joango da *Eskualdun (Ona)* kazetaren salmenta, 10.000 aleko tiradara inguratuz urte gutxiren buruan. Harrigarritzko hedapena da hori, eskola bidezko alfabetatze-aukera gehienak espreski edo praktikoki debekaturik dituen hizkuntza batentzat. Harrigarria da baina, itxura osoz, egia ere bai. Ezin da gertakari hori alde batera utzi, garai

---

eskualdun haurrei katiximaren eskuaraz erakasterat. Gobernamentuak zor dioten paga, bizitzeko ogia galdu nahi ez badute, beharko dutela Eskual Herriko eskualdun ume haur gaixoei katixima egin frantsesez. Biba eskuara!» (E 810, 1902-12-26).

e) 1906ko epaia. Prediku eta elizkizunetan euskara alde batera uzteko agindua eman zuen Pabeko Prefetak. Baigorriko auzapezak (Etcheverry-Aintchart alkate «gorri»ak) begiratu behar zuen hango erretorearen jokaera. Honek euskaraz hitz egin zuen, eta alkateak ez zion prefetari jokabide horren berri eman. Auzapez gorria presondegira eramane zuten horregatik. Ikus Inxauti (1972: 97), Piarres Lafitteren oharra jasotzen duena.

<sup>41</sup> Badago datu gehiago ere, gertaera horren egiantza ziurtatzen duenik: 1897an, Donibane Lohizuneko Euskal Festa handien erdian eta apezpikuaren aurrean, «M. Ch. Petit a surtout chaleureusement plaidé auprès de San Grandeur la cause de cette chère langue basque qui doit être pieusement conservée en nos écoles, en nos séminaires, en nos paroisses». (...) «Il paraît que, dans nos écoles libres même et surtout dans celles dirigées par des religieuses, le catéchisme est appris en français. *L'Eskualduna*, ce vaillant défenseur de nos moeurs et de nos traditions, et M. l'abbé Haristoy, le dévoué collaborateur de m. l'abbé Dubarat, ont fait entendre à ce sujet une éloquente protestation, qui a trouvé l'écho dans le coeur de tous nos compatriotes» (Petit 1899: 550).

hartako hizkuntza-kontaktua perspektiba soziozentrikotik analizatzerakoan. Beste jardun-gune gehienetan atzera doan une berean, eta aspaldiko partez, hedapen ohargarria bizi du eskuarak.

*Language spread* edo hizkuntza-hedapen nagusia frantsesarena da ordea. Frantsesaren hedapen hori, L2 moduan lehenik, aurrera doa etengabe. Frantses hutsezko eskola da, askoren esanean, hartarako tresna eragingarriena. Baita mingarriena ere, erabiltzen dituen metodoak lekuko.<sup>42</sup> Ez da eskola, ordea, frantsesaren hedapen-gune bakarra: turismoa, bidegintza berria eta transformazio demografikoaren, ekonoteknikoaren eta soziokulturalaren beste hainbat elementuk ere eragin bizia (eskolak bakar baino erabakigarriagoa) dute frantses mintzairaren garai hartako hedapenean. Horretaz jakitun da Hiriart-Urruti: euskaltzale gutxi bezain jakitun.

c) *Euskarari bizirik eustea: elizaren zeregina*

Euskal hiztun-elkartearen babesgune da eliza, Hiriart-Urrutiren eta bere inguruko askoren ustean. Babesgune hori arrisku bizian dago ordea: eliza-esparrura sartzen hasi da frantsesa, partez goitik hala beharturik eta partez eskualdunen beraien gogoz edo onarpenez. Mendeen joanak sozialki santzionaturik izan duen arau bat urratuz doa. Min egiten dio horrek kazetari hazpandarrari. Galera hori ez da, bere ustez, eliza-esparrura mugatuko. Konpartimentazio soziofuntzional horrek babes-indar handia eman izan dio euskararen belaunez belauneko iraupenari. Bata kentzeak bestea ahultzea ekarriko du ezinbestean. Elizkizunak eta bere inguruko joan-etorriak, katixima barne, euskaraz bideratu behar dira aurrerantzean ere euskarari bizirik eutsiko bazaio. Hartarako, jakina, apez eskualdunak behar dira. Horra bere hitzak:

Zer da hori (apaiz izateko eskualdun izan beharra) bano zuzenagorik eta ederragorik? Horrek dauku eta emaiten guri, frantses eskualdunei eskualdun espainolen gainean dugun eskugaina. Espainian ez direlakotz mintzo elizetan apezak eskuaraz, hainbertzetaraino galtzen ari dute beren eskuara ederra non azken berrogoita hamar urte hautan, hori delakotz, eskuarak Espainian lauetarik bat eremu edo lur ja galdurik baitu. Laster erditara dadin beldurtzeko da. Frantzian aldiz apezek daukute bizirik eskuara. Eta nola? Elizetan beti edo ardurenik eskuaraz mintzatuz. Eta zer nahi lukete? Apez eskualdunak has ditzen Eskual Herriko elizetan franximantez mintzatzen? Ez dezagun holakorik amets, nahi bagira eskualdun egon ("Eskuara elizan", *Eskualduna* 478, 1896-8-14).

Erremedioa argia da Hiriart-Urrutirentzat:

Erlisioea ororentzat da; baina bego tokian tokiko mintzaia nausi; Eskual Herrian eskuara. Eskuara ez dakitenez, alaxintxo, aski dute ikastea; Jainkoari esker badukete arrotz hoitarik zenbaitek ikasteko asti edo aizina... guk heienaren ikasteko dugun baino gehiago. (...) Aitzakia edo estakuru emanen derauzute: frantsesean trebeago

<sup>42</sup> Eskola-sistema (gobernamenduarena bereziki, baina elizaren aginte-alorrekoa ere hor nonbait) eralduntze-gune deneko aipamenak ugari dira han-hemen. Kontua atzetik dator. Euskal debekua salatzen du Van Eys-ek bere euskal gramatikan. Hots, «eratzunaren metodoa» (berez, eratzuna ordez «morceau de règle sur lequel est écrit le mot antibasque»). Antzeko testigantza jasotzen da beranduago ere: «On sait que, dans plusieurs villes et villages, le maître d'école a l'habitude d'administrer chaque samedi une correction à celui de ses élèves qui s'est rendu coupable d'avoir parlé sa langue maternelle» (Petit 1899: 550).

direla haur batzu ezen ez eskuaran. Hori ez da egia. Egia baliz, hanbat gaixtoago. Sormintzaia utzirik bertze bat nahiago duenak ahantziko du laster mintzaiatz bertzetik ere. Hots, buraso edo aitzindari haurren altxatzaileak, erakats ezozuete haurrei nahi bezenbat frantses; bainan erlisionekeo irakaspenak emozkitzute otoi beti orok eskuaraz. Eskuaraz katixima; eskuaraz goiz-arratsetako otoitzak; eskuaraz meza. Eta predikua? Predikua frantsesez ala eskuaraz dire hobe? Ala aldizkaxe? Hemen, hemen nahi nintuzke zenbait jaun eta andreren buruak xuxendu. Hemen hogoi, han hamar, prediku frantses baten gutizia edo beharra luketenak. Jaun kargudun eta andre karguduntsa eta bertze asko badirela eskuararik ez dakitenak; hala nola Kanbon, Ustaritzen, Saran, Ezpeletan, Hazparnen, Baigorriin, Atharratzen ... eta Santa Garazin ere ba naski (?). Heientzat igande oroz edo bederen noizetik noizera nahi lukete zenbaitek emana izan dadin herriko elizan prediku frantsesño bat. Zer zautzue? Ez dakit oren orotako berri; bainan gutiz gehien tokietan etzaut iduri holako baitezpadako beharrik badela (“Eskuara elizan”, *Eskualduna* 478, 1896-8-14).

#### d) *Euskara indarberritzea: kazetaritza*

Eskuarari bizirik eustea: hori dute Hiriart-Urrutik eta bere ingurukoek lehentasuneko xede. Denbora, esfortzu eta baliabide gutxiago xahutzen dute euskara (asmoz behintzat) indarberritzera lihoazkeen ekimen berri-kutsukoetan. Orain arte esandakotik, bistan da eskola bidezko alfabetatze- (zer esanik ez L2 gisako euskalduntze-) programarik ez dagoela Hiriart-Urrutiren garaiko gizarte-giroan, ez *top-down* eta ez *bottom-up* gisa (Kaplan eta Baldauf 1997). Ez demografiako kontzentrazioa indartzera letozkeen neurriak hartu dira, ez euskaldun-jendearen arteko harreman-sareak ugartu eta ez, azkenik, sare berri horiek soziofuntzionalki nabarmen zabaldu. Kazetaritza da, gorago esan denez, salbuespen bakarra. Aski ote da ordea kazetaritza bizi, erakargarri, zabalkunde handiko eta iraupen luze samarreko hori, eskuarari bizirik eusteko? Erantzuna bistan dago: ez, ez da aski. Motiboak ugari dira, baina bizpahiru oso dira nabarmen: batetik, kazetaritzaren kontsumoak ez du indarririk, eguneroko jardun-gune arruntetan eskuara jasaten ari den atzeramartxari eusteko; are gutxiago norabide hori itzulipurdikatzeko. Lau trebetasunetatik bat, irakurmena, lantzen da gainera kazetaritza bidez, onenean. Eskual protoeliteak, bestalde, inor baino ahulago baliatzen dira aukera horretaz. Eskualdun kazetak salmenta-igoera nabarmena izanik ere, azkenik, aspaldiko konpartimentazio funtzionalari (idatzizko jarduna frantsesean oinarritua duen nagusitasun-moldaerari) firmo eusten diote euskaltzaleek beraiek. Hiriart-Urrutiren eta Broussainen arteko dokumentazioa da, urrutirago gabe, gertaera horren testigu: bien arteko eskutitz gehienak frantsesez idatziak daude: “Le Fds. B. possède 29 lettres de l’abbé Hiriart-Urruty á Pierre Broussain (1894-1906). La plupart d’entre elles sont en français, mais celles qui sont en basque (4) présentent ( ) un valeur littéraire certaine”. Ez dago hor oinarri sozialik, kazeta baten laguntza hutsaz H esparruko buru-jasotze handirik abiarazteko. Are gutxiago “etxe-auzo-lagunarte-kale” esparru-multzoan gertatzen ari den atzerakadari freno jarri eta indarberritze sendorik eratzeko.

#### III.3.2. *Hiriart-Urrutiren ikuspegia, luze-zabaleko mintzaldaketaz*

Mintzaldatzearen aurkakoa da, oro har, Hiriart-Urruti. Euskara-erdaren elkarbizitza du xede. Eskualdun-jendeak frantsesari leku bat egitea eskatzen du xede

horrek. Ez da frantsesaren etsai. Elebitasunari abantailarik ikusten dio: gogo onez aitortzen du hori. Eskuara ikusten du ordea kolokan: horrek kezkatzen du bereziki. Leku bat behar du eskuarak, zeharo galduko ez bada, frantses-eskuaren panteoi horretan. Leku propio bat, eskualdunek fermuki galdutua eta erdadunek begirunez onartua. Leku propio hori zehazteko orduan, ez dabil iraultza sakonen bila. Ez dira bere iritziak eta bere jarrera gehienak aldakuntza handien aldeko. Honetara bil daiteke, itxuraz, bere ikuspegi nagusia: “On da gazteek (mutikoek hainbatean, neskatok nabarmen guttiago<sup>43</sup>) frantsesegiten ikas dezaten. Datorkigun gizarteak, dituen ezaugarriak dituela, marginalia miserablera baztertuko lituzke bestela. On da, horregatik, gazte-jendeak frantsesegiten ikastea eta aurrerantzean, zenbait jardun-gune, harreman-sare eta situaziotan, frantsesegitea. On da, era berean, hizkuntza bien arteko elkar-bizitza ahalik eta liskar-gatazka txikienaz antolatzen saiatzea. Luze-zabaleko elebitasun mugagabe bat ezin izan liteke, ordea, etorkizun-molde eredu-garriena. Bere-bereak dituen jardun-guneak mantendu behar ditu eskuarak, indar betean, etorkizunik izango badu. Konpartimentazio-arau zorrotzak errespetatzea eta errespetaraztea eskatzen du horrek. Oso nabarmena da behar hori, eliza-esparruari dagokionez”. Hori da Hiriart-Urrutiren ikuspegia, hainbat aldiz frankozale deklaratu-tzat hartu izan dena. Ez da juzku horretarako motiborik falta, batez ere 1910 ingurutik aurrera. Ordura arteko bere jardunean ordea, eta hazpandarraren ordura arteko jarduna da ekarpen-kopuruz eta dentsitate kontzeptualez deigarriena, besterik da nagusi: arazoei bere gordintasunean heltzeko adimen argia eta delibero sendoa du Jeanek.

Ez da Hiriart-Urrutiren testigantza idatzia, *Eskualduna* kazetatik jaso litekeena, gizarte-bizitzan gertatzen ari den mintzaldatzearen erakusgarri zuzena: ez zuzena eta ez zeharkakoa. Astero-astero, jendaurrean eta hizkera zainduz, eskuaraz ari den gizona dugu Jean. Oro har gailentzen ari den joera nagusiaren kontra dihardu funtsean; kontra jardute horretaz ondo asko jabetua dago. Kanpañar-baserritarren mintzajardunarekin eta barne-aldeko hainbat hirixkatakoko bizilagunekin (batez ere adinez gora doazen “eskualdun”ekin) bat egiten du eskuarazko jardueran. Baina hiriburuetan, Lapurdiko kostaldean eta han-hemengo hiribildu nagusietan bizi den gero eta hitzun-talde zabalagoaren jokabidearekin nekez uztar liteke berea.

Protoelite eskualtzalearen jardunetik hurbil dabil Hiriart-Urruti: iparraldeko elizgizon askoren (ez guztien) eta profesio liberaletako (batez ere medikuntzako) eskualtzale batzuen jardunetik hurbil. Ez hori bakarrik: ildo beretik ibiltzeaz gainera, haietako askoren bide-erakusle ere bada bera. Ez da Jean euskara hutsezko gizarte-bizitzaren babesle eta hezur-mamitzaille. Bai, ordea, euskara-erdarek (batez ere eskuara-frantsesek) elkarrekin jarduteko eginbeharra izango duten gizarte-molde baten formulatzaile. Elkar-bizitza horrek, bideragarria izango bada, gauza bat du Hiriart-Urrutiren ustean ezinbesteko: hizkuntza bien arteko konpartimentazio soziofuntzional (eta, agian, territorial) zorrotza, ihespide alferrik gabea. Aski modernoa da hazpandarra, alde horretatik: diglosiarik gabeko elkar-bizitza egonkorrik posible denik ez du uste. Diglosiazko bizimodua opa die, horregatik, eskuarari eta frantses-kas-

<sup>43</sup> Sexu-bereizketa argia egiten du Hiriart-Urrutik, elebiko nagusitasun-moldaeraz denaz bezainbatean. Europako korrespondentzia posibletarako ikus, esate baterako, Lévy (1928).

koineri. Honelatsu doa bere leloa, laburkiro emanik: “beude modernitateari loturiko hainbat jardun-gune, harreman-sare eta situazio frantsesaren mende; gainerakoetan, eliza barne, bego eskuara jaun eta jabe”.

### *III.3.3. Hiriart-Urrutiren testigantza pertsonala, mintzaldaketaz*

Zail da, Hiriart-Urrutiren baitan, mintzaldaketa-arrasto handirik antzematea. Eskuara-frantsesen konpartimentazio soziofuntzional egonkorraren apostolu da bera, hitzez eta egitez. Belaunez belaun transmitituz bizirik iritsi den diglosia molde zahar-raren jarraitzaile eta indar-emaile. Badaki gauza batzuek aldatu egin beharko direla diglosia tradizional horretan: frantsesari leku jakina egin beharko zaio, ohiko H funtzioetan lehendik duenaz gain, eskualdun gazteen modernitateari eta urbanizazioari loturiko zenbait interakzio-moldetan. Horren ordainetan, ordea, eskuarari ere zabaldu egin nahi dio espazio soziofuntzional berria: ahozko jardunari idatzizkoa (batez ere irakurketa) erantsi nahi dio. Hori da bere apustu euskaltzalerik euskaltzaleena, inork inoiz ukatu ez diona. Gainerakoan, eta gainerakoa da nagusi, konpartimentazio tradizionalaren aski jarraitzaile ortodoxoa dugu hazpandarra: segun non ari den, norekin eta zertaz, frantsesez egiten du, herriko hizkera arruntaz dihardu edo, idatziz eta jendaurrean bereziki, eskuara landu bizia darabil. Konpartimentazio horren ildotik, adibidez, frantsesez idazten dizkio gutunak zenbait euskaltzaleri. Labur bilduz: ahal delarik minimizatu egin nahi du Jeanek luze-zabaleko mintzaldaketa, frantsesari leku jakina eskainiz bere mintza- eta idatz-jardunean. Diglosia zaharberritu baten bila dabil hazpandarra, eskuarari belaunez belauneko jarraipen-aukera segurtatzeko asmoz.

## **IV. Hiru gertakarien elkar-eraginezko harremana**

Zer elkar-eragin dute gertakari linguistikoek, psikolinguistikoek eta soziolinguistikoek? Beregainak al dira, erabat, hiru ondorio horiek? Ez: beregintasuna ez da arau nagusia. Maizago gertatzen da elementu horiek loturik agertzea, etxeko zein mundu zabaleko testigantza praktikoetan. Maizago ikusten da, adibidez, plano linguistikoan gertatzen dena eta plano psikolinguistikoan antzematen dena korrelazio jakinean egotea. A hizkuntza interferentziaz betetzea, A-hiztunak hizkuntza horretan (ez Bn) lehen baino traketsago moldatzea (edo beren A-zaletasuna ahultzea) eta, plano soziologikora hegaldatuz, A hizkuntzaren erabilerak situazio, rol-harreman eta jardun-gune jakinetan atzera egitea (lehen baino erabiltzaile gutxiago izanik, edo erabilera-esparru mugatuagoa) nolabait loturik ageri dira sarri. Elkar-eraginezko harremanean agertu ohi dira maiz.<sup>44</sup>

Nondik norakoa da eragin hori? Zein fenomenok dirudi aurrekari, eta zeintzu litrateke oihartzun? Zein fenomeno da enbor, eta zein dira adar? Zein da hiru plano horien kausa-efektuzko kateamendu-ordena nagusia? Beste konfiguraziorik posible bada ere, bi kateamendu hauek antzematen dira sarrienik testigantza askoren oinarrian: a)

<sup>44</sup> Elkar-eragin horren zer-nolakoaz eta zenbatekoaz bibliografia zabala dago han-hemen. Hemen-goaz, eta jarrera-kontuak hizkuntza-gaitasunean (bakanago erabileran) duen eraginaz, ikus, adibidez, Lasagabaster (2003).



hizkuntza-kontaktuak hiztun batzuen elebitasun desorekatua edota hizkuntza-jarrera epeltzea eragiten du eta, horren ondorioz, hizkuntzen ordura arteko erabilera-araua modifikatzen; b) hizkuntza-kontaktuak hiztun-talde jakinen erabilera-araua modifikatzen du, erabilera-arau berri horrek hiztun batzuen elebitasun desorekatua eragiten duelarik batetik, eta hizkuntz(ar)en barne-egitura modifikatzen bestetik. Lehenengo kasuan ondorio psikolinguistikoa da enbor; bigarrenean, aldiz, ondorio soziolinguistikoa. Nola dira kontuak Hiriart-Urrutiren eta bere garaikoen artean?

#### IV.1. Fenomeno eta prozesu psikolinguistikoak enbor, beste biak adar

Garrantzi handia du kateamendu honek Hiriart-Urrutiren pentsaeran. Hizkuntza-jarrera elementu zentrala da beretzat, plano bateko eta besteko berrikuntzen iturria bilatzerakoan. Zentraltasun horren adibide ugari jaso liteke bere lanetan. Demagun, esaterako, ondoko hauek:

Behar nintuzke aipatu eta nahi ere ba eskuarazko katiximak eta otoiitz-liburuak, urte oroz gutitzen ari direnak, zeren egungo egunean zerbait eta norbeit direla uste duten buraso eskualdunek beren haurren eskuetan liburu frantsesak ikusi nahiago baitituzte, ezen ez eskuarazkoak (“Eskuara elizan”, *Eskualduna* 478, 1896-8-14).

Konfigurazio psikosoziala, prestigio kontuen alorrean kokatua antza, hizkuntza-erabilera baten edo besteren eragile bizkorra da bere ustez. Hona beste adibide bat:

Diren bezalako gizon mutur-zuri, emazte moko-meheak! Horrela deramate gure mintzai eskuara zaharra gabetzerat bere hitz eta hizkuntza eskualdun guziez. Uste duzue bederen apezek arta gehixago dutela, beren eretzean, beren ahal oroz eskuara oso eta garbi begiratzeko? Zenbaitek ba; betidanik izan dire, eta badire egungo egunean ere badakitenak eskuaraz ederki mintzatzen. Bainan ... bainan, gizona, bertze batzuek axola guti dutela eskuaraz nolnahi mintza! Askotan solas bat errexago, ederrago liteke predikalkitik eskuara garbiz emanikan. Baduk hoberik! Nahiago dute frantsesez emokaturik eman (“Pauvre basque”, *Eskualduna* 482, 1896-9-11).

Ikus dezagun azken adibide bat:

Nork, noiz arte, nola begiratuko hau, osoki galtzetik? Frantses eta kaskoin solas bihurri batzu baizik ez duzu entzuten, asko eskualdunen ahotik. Nehor ez da gehiago eskuara garbiz mintzo. Anitzi ederrago zaiote frantsesez mintzatzea, ustez frantsesa errotik badakitela. Alegia eskuaraz mintzo direnean ere, beti edo ardura frantximant hitza dariozkate. Egiazki trufaz bezala mintzo direla iduri dute. Bainan ez da trufarik; zin-zinez ari dire; batzu ezazolakeriaz, bertzeak zozokeriaz, ustez ederrago den (*Eskualduna* 182, 1896-9-11).

Kontura gaitezen hizkuntza-jarrerei ematen diela lehentasuna, ez hizkuntza-gaitasunari edo gaitasun-faltari: “haur gaixoez frantsesa ez ongi jakinikan ere” dio batean, eta “ustez frantsesa errotik badakitela” bestean. Hizkuntza-jarrera hori kognitiboa da hainbatetan. Bada bestelakorik ere, ordea, Hiriart-Urrutiren ikuspegi horretan: bai jarrera mota afektiboa eta bai konatiboa.<sup>45</sup> Euskararen (eta eskualdun

<sup>45</sup> Jarrera mota kognitiboen, afektiboen eta konatiboen arteko bereizkuntzaz ikus Rosenberg eta Hovland 1960. Gure artean sintesi-lan ona eskainia digu David Lasgabasterrek (2003: 32-5).

garbien) aurkako jarrera ere mintzaldaketaren iturburu argi da Hiriart Urrutiren us-tez. Horrelako adibidez beterik dago, esate baterako, 1909ko bere *Dugun atxik eskuara*: “Hain dute hastio askok eskuara non, izenak berak okastatzen dituela iduri baitute” (1971: 201), edota “Hiritarrek menditarrak ez ditutzue hastio, ba ordean heien mintzaia higuin” (1971: 208). Eskuaraganako higuina edo hastioa: horra hor Hiriart-Urrutiren bigarren enbor-azalpena.

Labur bilduz: hizkuntzaganako jarrera kognitibo, afektibo edo konatibo ezkorrek hiztun garbien galera dakarte askotan, ikuspegi honen arabera. Hiztun garbien galera horrek eragin linguistikoak ditu, batetik: hiztun horiek egiten duten (eta, itxuraz, horien jardunaz beste askoren ezpainetara hedatzen den) hizkuntza pobretuz doa, bestelakotuz, “bere betiko izaera” galduz. Bestetik, berriz, eragin soziologiko argiak ditu jarrera ezkor horrek: hizkuntza “pobre” horren ezintasun-eragozpenek eraginik, frantsesaren “berezko edertasunak” edo gizartean gora egiteko berekin dakarren laguntza-indarrak erakarririk, jendeak utzi egiten dio eskuaraz egiteari. Utzi egiten dio erabat edota, gutxienez, zenbait jardun-gunetan, zenbait funtziotan A hizkuntzatik Bra pasatzen da.

Jarrera kontua ez baina hizkuntza-gaitasun desorekatua, gero eta frantsesaren aldera makurtuagoa, da beste zenbait kasutan mintzaldatzearen iturburu. Hasieran jarrera ezkorriari egozten zaion kausaltasuna gaitasun-eskasiari egozten zaio une batetik aurrera. Apaiz-jendearen *dominance configuration* delakoa, gero eta frantsesera makurtuagoa, enbortzat hartzen da sarri. Har dezagun, ikuspegi horren abiaburuko, Charles Petit-en aitormen ezaguna (1899: 551): “Le basque est peut-être encore interdit (...) au petit séminaire de Larresore et au grand séminaire de Bayonne. Le jeune clergé l’y désapprend; par suite, il ne le parle, après dix ou quinze ans d’études classiques et théologiques, qu’avec un odieux mélange de mots français”. Hasieran apaiz gazteen ezaugarri berezitat ematen den erdal-elebitasun horrek adin orotako ezaugarri zabala dirudi handik urte batzuetara: “beaucoup de nos curés trovent plus commode de parler et d’écrire en français” (Albert Constatin medikuak Broussaini 1919an, in Charriton 1985: 239, 279). Tradizio luze samarra du kausa-efektuzko ikuspegi horrek ere gure artean.<sup>46</sup> Hiztunen gaitasun-galera eta, horren ondorioz, hizkuntza bestelakotzea eta hizkuntza horretan (lehen adina) ez egitea txanpon beraren aurpegi bi direla azpimarratu izan da aspaldidanik. Kontura gaitetzen, halere, Petit-en azalpenean euskaraz egiteko debekua dagoela iturrian, eta horren ondorioztzat ematen dela apaiz gazteen erdal-elebitasun desorekatua. Hurrengo atalera garamatza horrek.

## IV.2. Fenomeno soziolinguistikoa enbor, beste biak adar

Erabilera alorreko aldaketa (lehen baino gehiago egitea, gutxiago edo, debe-kuz, egiteari uztea) iturburu edo enbor gisa hartzen da hainbat azalpenetan. Aldaketa horren mekanismoetako bat emulazio soziala da. Dezakeen jendearen luze-zabaleko mintzaldatzea, bereziki, beste bi fenomenoen aurrekari argizat hartzen da sarri. Mintzaldatze horren difusio-bidea imitazio edo emulazio soziala da. Hala dio

<sup>46</sup> Antzeko testigantzak jaso litezke Europako beste hiztun-herri askotan.

Broussainek: “Jende xehia beti jende handiâi jarraitzen zako; ala beztitzeko maneran ala mintzatzeko maneran. Eskualherriko jende handiek, mi(r)iku, aphez, notari, abokat aspaldian eskuara utzi dute frantsesez edo españolez ar(i)tzeko eta hek bezala (eg)iteko jende xehiak e(r)e â(r)i di(r)a frantsesez edo españolez mintzaten, ahal dutenean”<sup>47</sup> (in Charriton 1985: 217; Pierre Broussainek Lacomberi 1903-X-3an). Goikoek euskaraz egiten ez dutelako gaizki dakite egiten; egiten duten apurra interferentziaz eta “defektuz” betea dago. Beren eredu hori gizartera zabalduz doa, imitazio soziala dela medio. Antzeko esplikaziorik jaso liteke Hazparneko kazetariaren lumatik, bere ondorio linguistikoetan zentratuz halere:

gu gira eskualdunak guhaur eskuararen etsai; eskuararen galarazle. Jende xehea bera, kasik eskuara baizik ez dakiena, erdi eskuara, erdi frantximan nahasiz mintzo da. Behin baino gehiagotan erran dugu; bainan ez daukagu hargatik jende xehea, populua hobendun. Ezen ez daki populua eskuara garbiaren garbi ez denetik berexten. Ez da ohartzen garbiz mintzo den, ala ez. Nor da beraz hobendun? Eskualdun argituak, buruzagiak. Zerbait direnak eta zerbait dakitenak edo jakin behar luketenak (“Zerk du galtzen eskuara?”, *Eskualduna* 530, 1897-8-13).

Bada noski mintzaldatze selektiboagorik, gainerakoen pizgarri gertatzen denik: elizako eta eskoletako euskal debekua, bestek beste. Euskara jardun-gune horietatik bazterteak (fenomeno soziologikoa hortaz) ondorio zabalak ditu bai bestelako jardun-guneetan, bai hiztun gazteen elebitasun-moldaeran eta bai, azkenik, beren ezpainenetik jalgi ohi den euskara moldean. Hiriart-Urruti dugu ikuspegi selektibo honen berri-emaile: “Mintzo naiz eskoletako buruzagi eskualdunetz. Utz ditzagun bazterrerat gobernamentuko eskoletan diren errientak eta errientsak, nahiz balitaken hetaz ere zer erran. Bainan hek bederen badute estakuru bat, eskuararen bazterrerat uzteko. Goragoko buruzagiak manuz, frantsesa dute bakarrik erakatsi behar. Hori gaizki bertzenaz; ezen zer litake zuzenagorik Eskual Herriko haurrek eskuaraz irakurtzen eta izkribatzen ikastea baino, frantsesarekin batean? Bainan errienteak eta errienteak egin ez dezaketena, egin dezakete fraidek eta serorek; bereziki serorek. Ezen mutikoez baino frantses gutiago aski dute neskatxek. Eta gero serorak eskola libroetan kasik osoki beren jabe dire, nahi dutena erakats eta nahi ez dutena ez. Ez dute gobernamentuko buruzagiak eskuarari buruz han deus ikustekorik. Iduri du beraz serora eskualdunek eskuara behar luketela begiratu beren eskoletan. Frantses poxi bat ere erakats ba; bainan eskuara lehen. Eskuaraz otoitzak, eskuaraz katixima, eskuaraz elizako kantuak”. Erabilera-aldaketa ageri da horrelakoetan, Hiriart-Urrutiren baitan, iturburu nagusi.

### Azken hitz

Ez da erraza jakitea, aurreko bi ikuspegi horietan eragingarriena zein den. Erabaki argirik hartu ezinik sumatzen da Hiriart-Urruti puntu horretan, eta ez da harritzekoa. Antzeko duda-mudak ageri dira handik ehun urtera ere, ukipen-linguistika-

<sup>47</sup> Difusio-bide horrek erakusten dio Hazparneko jaun medikuari, eskuara indarberritzeko zer egin behar den: «Guk bertzez baino eskola gehiago dugunek eta eskuarari atxikiak garenek, behar ginuke usu eskuaraz izkiriari, erakusterat emaiteko eskuara ez dela bazterrerat aurdikitzen ahal den mintzaira bat, piltzar baten pare» (testu-pasarte beretik jasoa).

ren alorreko espezialista ezagun askoren artean: “Neben dem sozialen System, dem sich das Individuum anpaßt (vgl. das synergetische Modell), und der Familie, in der es seine ersten Sprachkompetenzen erwirbt, ist die individuelle kognitive Organisation von Sprache der Hauptort des Prozesses “Sprachkontakt” als Kontakt zwischen unterschiedlichen Varietäten und Sprachen” (Wildgen 1988). Ehun urte pasa dira Hiriart-Urrutiren kazetari-lan erakargarri haietatik, eta mende-erdi luze Uriel Weinreich-en teorizazio-saio sendotik. Gauza asko ikasi dugu bidean, batzuei eta besteei esker, hizkuntza-kontaktuaren alorrean. Apal onartu beharra daukagu, ordea, azken puntu honi buruzkoan ugariagoak ditugula oraindik ere zalantzak eta duda-mudak, irizpide artezak baino. “Die individuelle kognitive Organisation von Sprache” kontsideratzen da orain ere hizkuntza-kontaktuaren muin, Weinreich-en ildotik aldendu gabe horretan. Baina “neben dem sozialen System, dem sich das Individuum anpaßt, und der Familie” egiten da muineratze hori: hots, perspektiba soziozentrikoaren lehengai diren postulatuak hartzen dira eskumutil. Horietatik abiatuz ekiten zaio, orain ere, interferentziaren, kode-alternantziaren eta abarreko gertaera horien analisiari. Ez da erraza, hiru perspektibon baterabilduzko garapen akademikoa zein mugatua izan den gogoan izanik, lankidetzaz horretatik ondorio erabatekorik ateratzea. Gutxi dago halakorik, hor zehar, eta aski etsigarria da egoera gure artean: duda-mudak eta epai hotzak dira azter-eremu honetan nagusi. Duda-mudek eta epai hotzek, mingotsa izango bada ere beren ondorena, aurrera egiten lagutzen dute ordea. Ez dago beste biderik, hizkuntza biren edo gehiagoren arteko kontaktua, batez ere bere ondorioak, ikuspegi integratu batetik aztertu nahi badira. Aurrekoen usteak, iritziak eta argudio-bideak ez dira lagungarri eskasak, integrazio horren bila ari garenontzat.

Uste-iritziak eta argudio-bideak argi, edonork entenditzeko moduan eta aski era objektiboan, plazaratzen saiatua dugu hazpandar kazetaria orain dela ehun urte inguru. Hori erakusten digu bere jardunaz: begien aurrean ditugun gertakari sozilinguistikoei posible dela, bihotza bihotz izanik ere, arrazoi-bidez heltzen. Whitney (1881), Schuchardt (1884), Zimmerli (1891), Möhl (1892), Wakernagel (1904), Viatte (1908), Mc Dougall (1908), Hoffman (1909), Wundt (1911, 1912) eta abarren berri izan gabe ari delarik ere, haien bidetik dabil hazpandarra, uste baino sarriago, mintzajardunaren gizarte-moldaera argitu nahirik ari denean. Hurrengo hamarkadetan psikologia sozialaren eta hizkuntza-soziologiaren aztergai nagusi izango diren gai jakinak jendarteratzen ari da bera: ikus Öhmann (1924), Makensen (1926), Lévy (1928), Schmidt-Rohr (1932 eta 1934), Kuhn (1933), Karsten (1935), Isbert (1936), Lurie (1938), Sandfels (1938), Schultze (1943), Kainz (1943), Haugen (1938, 1950 eta 1952) eta Kloss (1952). Airoski eginik digu lan hori: orduko irakurleek lehen begi-kolpean entenditzeko moduan, batetik; egungo egunean gai horien jakin-mina dugunoi hizkuntzen gizarte-dimentsioaz jabetzeko lagungarri sendoak eskainiz, bestetik. Ezin baztertuzko erreferentzia dugu Hiriart-Urruti, Euskal herriko hizkuntza-kontaktuaren 1900 inguruko joan-etorriak zientzia-arauz aztertzeke orduan.

## Bibliografia

- Abbadie, A., 1896, «Sur la préservation de la langue basque (notice)», *BSL* 1895-96, IX, lxxviii. Ikus orain Urkizu (arg.), 1997: 446.

- Altzibar, X. (arg.), 2004, *Ni kazeta-egilea naiz*. Hiriart-Urrutiren *Eskualduna (Eskualdun Ona)* kazetako artikulua-bilduma. Bilbo: Labayru ikastegia eta Bilbao Bizkaia Kutxa fundazioa.
- Campion, A., 1899, «La langue basque», in *La Tradition au Pays Basque*, 413-459. Erabilitako argitalpena, Elkar etxearen 1989koa.
- Castoreo, P., 1993, *Langue Basque et Enseignement, en France, de 1789 a 1993*. Université de Pau et des pays de l'Adour.
- Charriton, P., 1985, *Pierre Broussain. Sa Contribution aux Études Basques*. Paris: Editions du Centre National de la Recherche Scientifique.
- Cooper, R. L. (arg.), 1982, *Language Spread. Studies in Diffusion and Social Change*. Bloomington: Indiana U. P.
- Elissamburu, M., 1889, *Lehenagoko eskualdunak zer ziren*. Baiona.
- , 1890a, *Zer izan diren eta zer diren oraino framazonak munduan*. *Eskualdun* gazetan argitaraturiko artikuluen bilduma.
- , 1890b, *Framazonak (bigarren edizioa) eta Frantziako hirur Errepubliken ixtorioa laburzki*.
- Ferguson, Ch. A., 1959, «Diglossia», *Word* 15, 325-340.
- Fishman, J. A., 1964, «Language maintenance and language shift as a field of inquiry», *Linguistics* 9, 32-70.
- , 1987, «Language spread and language policy for endangered languages», in P. H. Lowenberg (arg.), *Georgetown University Round Table of Languages and Linguistics*. Washington: Georgetown U. P.
- , 1991, *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
- et al. (arg.), 1966, *Language Loyalty in the United States*. The Hague: Mouton.
- Frías Conde, X., 2002, «Introducción a la Psicolingüística», *Ianua. Revista Philologica Romanica*. Suplemento 06.
- Gumperz, J. eta E. Hernández-Chávez, 1972, «Bilingualism, bidialectalism and classroom interaction», in J. Cazden eta P. Hymes (arg.), *Functions of the Language in the Classroom*. New York: Columbia Teachers College Press.
- Haugen, E., 1938, «Phonological shifting in American Norwegian», *Lg* 14, 112-120.
- , 1950, «The Analysis of Linguistic Borrowing», *Lg* 26, 210-231.
- , 1952, «The impact of English on American-Norwegian Letter Writing», in *Studies in Honor of Albert Morey Sturtevant*, Lawrence.
- Hiriart-Urruti, J., 1891-1915, *Eskualduna (Eskualdun Ona)* kazetako artikulua, X. Altzibarrek bildua in 2004 *Ni kazeta-egilea naiz*.
- , 1909, «Dugun atxik eskuara», 1971n berrargitaratua in *Mintzaira, Aurpegia: Gizon*, 195-221. Arantzazu-Oñati: Jakin.
- Hoffman, H., 1909, «Einfluss des polnischen auf Aussprache, Schreibung und formale Gestaltung der deutschen Umgangssprache in Oberschlesien», *Zeitschrift für deutsche Mundarten*, 264-279.
- Intxausti, J., 1972, *Iraultzaren Hildotik*. Oñati: Jakin Historia (3. zkia.), eta Baiona: Ikas.
- Isbert, O., 1936, «Die Psychologie der Madjisierung», *Deutsches Grenzland*, 59-71.
- Kainz, F., 1943, *Psychologie der Sprache*. Stuttgart.
- Kaplan, R. B. eta R. B. Baldauf, 1997, *Language Planning. From Practice to Theory*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Karsten, J. E., 1935, «Mélange des langues et emprunts», *Scientia* 58, 182-92.

- Kloss, H., 1952, *Die Entwicklung neuer germanischer Kultursprachen von 1800 bis 1950*. Munich: Pohl.
- Kuhn, W., 1933, «Die Bedeutung der geographischen Schutzlage für Kremnitz, Deutsch-Proben und andere deutsche Sprachinseln», *Geographischer Jahresbericht aus Österreich* 17, 8-26.
- Lafitte, P. eta J. Intxausti (arg.), 1971, *Mintzaira, aurpegia: gizon!* Oñati: Jakin Historia (2. zkia.), eta Baiona: Ikas.
- & —, 1972, *Zezenak Errepublikan*. Oñati: Jakin Historia (4. zkia.), eta Baiona: Ikas.
- Lambert, W. E. eta G. R. Tucker, 1972, *Bilingual education of children: the St. Lambert experiment*. Rowley, Newbury House.
- Lasagabaster, D., 2003, *Trilingüismo en la enseñanza. Actitudes hacia la lengua minoritaria, la mayoritaria y la extranjera*. Lleida: Editorial Milenio.
- Lévy, E.-H., 1928, «Langue d'homme et langue de femme en judéo-allemand», in *Mélanges Andler*, Estrasburgo.
- Lurie, W. A., 1938, «The Measurement of Prestige and Prestige-Suggestibility», *Journal of Social Psychology* 9, 219-25.
- Makensen, L., 1926, «Sprachmischung als Wortbildungsprinzip», *Zeitschrift für deutsche Philologie* 51, 406-12.
- McDougall, W., 1908, *An Introduction to Social Psychology*. Londres: Methuen.
- Moguel ta Urquiza, J. A., 1987, *Cristaubaren Icasbidea edo Doctrina Cristiana*. Euskaltzaindia: Bilbo.
- Möhl, F. Geo., 1892, «Le mécanisme grammatical peut-il s'emprunter?», *Mémoires de la Société Linguistique de Paris* 7, 196.
- Muhr, R., 1981, *Sprachwandel als soziales Phänomen: eine empirische Studie zu soziolinguistischen und soziopsychologischen Faktoren des Sprachwandels im südlichen Burgenland*. Wien: Braumüller. VIII, 208 or. Schriften zur deutschen Sprache in Österreich, 7.
- Nelde, P. H., 1997, «Language conflict», in F. Coulmas (arg.), *The Handbook of Sociolinguistics*, Oxford: Basil Blackwell, 285-300.
- Öhmann, E., 1924, «Zur Frage nach der Ursache der Entlehnung von Wörtern», *Mémoires de la Société Néo-Philologique de Helsingfors* 7, 281-289.
- Petit, Ch., 1899, «Antoine d'Abbadie», in Elkarlanean, *La Tradition au Pays Basque*, 539-580. Erabilitako iturria Elkar, 1989.
- Rosenberg, M. J. eta C. I. Hovland, 1960, «Cognitive, affective and behavioral components of attitudes», in Rosenberg (arg.), *Attitude Organization and Change*. New Haven: Yale U. P.
- Rosetti, A., 1945/49, «Langue mixte et mélange des langues», *Acta Linguistica* 5, 73-79.
- Sandfells-Jensen, K., 1938, «Les interferences linguistiques», in *4th International Congress of Linguists. Actes*, 60-65. Copenhagen.
- Schmidt-Rohr, 1932, *Die Sprache als Bildnerin der Völker*. Jena.
- , 1933, *Mutter Sprache*. Munich.
- , 1934, «Stufen der Entfremdung; ein Beitrag zur Frage der Assimilation von Sprachgruppen», *Volksspiegel* 1, 75-82.
- Schuchardt, H., 1884, *Dem Herrn Franz von Miklosich zum 20. November 1883: Slawo-deutsches und Slawo-italienisches*. Graz.
- Schultze, E., 1943, «Die Dynamik des Sprachenwechsels in Schleswig», in *Volkwerdung und Volkswandel* 21-40, Leipzig.

- Thomason, S., 2001, *Language Contact. An Introduction*. Edinburgh U. P.
- eta T. Kaufman, 1988, *Language Contact, Creolization and Genetic Linguistics*. University of California Press.
- Ulzurrun, F., 1662, «Carta del doctor d. Fermin Ulzurrun al diputado del reino d. Martin de Agoiz», in J. Estornés Lasa, 1968, *Los Vascos y la Universidad*. Donostia: Auñamendi.
- Urkizu, P. (arg.), 1997, *Recueil des textes ethnographiques, géodesiques, linguistiques, littéraires*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Urquijo, J., 1918, «Estado actual de los estudios relativos a la lengua vasca», 1918ko irailaren 3an Oñatiko kongresuan irakurritako txostena. Akta-liburua eta aparteko argitalpentxo Bilbon: Elexpuru.
- , 1920, *Lengua internacional y lenguas nacionales. El euskera, lengua de civilización*. Bilbo: Bizkaiko Aldundia.
- , 1925, «El vascuence de San Juan de Luz», *RIEV* XIV, 153-8.
- Viatte, L., 1908, «La germanisation du Jura», in *Actes de la Société Jurassienne d'émulation* (2. saila) 15, 61-77.
- Wackernagel, J., 1904, «Sprachtausch und Sprachmischung», in *Nachrichten der königlichen Gesellschaft der Wissenschaften zu Göttingen*, 26-43.
- Wagner, K. H. eta W. Wildgen (arg.), 1988, *Studien zum Sprachkontakt. Sprach- und Kommunikationswissenschaftliche Grundlagenforschung*. Bremen: Universität Bremen.
- Weinreich, U., 1953, *Languages in Contact*. New York: Linguistic Circle of New York.
- Whitney, W. D., 1881, «On mixture in Language», *Transactions of the American Philological Association* 12, 1-26.
- Wildgen, W., 1988, «Darstellung einiger wichtiger Methoden der Kontaktlinguistik», in K. H. Wagner eta W. Wildgen (arg.), *Studien zum Sprachkontakt*, 3-23.
- Winford, D., 2002, *An Introduction to Contact Linguistics*. Wiley: Blackwell.
- Wundt, W. M., 1911, *Probleme der Völkerpsychologie*.
- , 1912, *Elemente der Völkerpsychologie*.
- Xarriton, P., 1985: ikus Charriton (1985).
- Zalbide, M., 2007, «Iparraldeko euskalgintza, XIX. mendearen bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia», *Euskera* 52, 876-1008.
- eta I. Muñoa, 2006, «Lardizabal eta bere euskal gramatika, perspektiba soziolinguistikoan», in Lardizabalen *Gramática Vascongadaren berrargitalpena*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Zimmerli, J., 1891-99: *Die deutsch-französische Sprachgrenze in der Schweiz*. 3 liburuki. Darmstadt.